



IEP 2011-2014

INGURUMEN ESPARRU PROGRAMA

2011-07-12

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE
PLANGINTZA, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA



AURKIBIDEA

1. SARRERA ETA III. IEP-REN TESTUINGURUA.	5
1.1 EAE-KO INGURUMEN POLITIKAREN ESPARRU JURIDIKOA.....	5
1.2 EAE-KO GIZARTEAREN INGURUMEN ESKAERAREN AZTERKETA.....	8
1.3 EAE-KO INGURUMEN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA	9
1.3.1 Ingurumenaren egoera.....	9
1.3.2 II. IEPren ebaluazioa.....	12
1.4 EAE-N INDARREAN DAGOEN ETA SORTZEN ARI DEN PLANGINTZA	15
1.5 INGURUMEN POLITIKEN ESPARRUA ETA JOERAK	17
1.5.1 Tresna Estrategikoak.....	17
1.5.2 Joeren azterketa.	19
2. III. IEP-REN ELEMENTUAK	23
2.1 III. IEP-REN IKUSPEGIA.....	23
2.2 EGITURA.....	26
2.3 IKUSPEGIAK ETA HELBURU ESTRATEGIKOAK	26
2.4 III. IEP-REN KUDEAKETA	28
3. HELBURU OPERATIBOAK ETA JARDUTE-LERROAK, HELBURU ESTRATEGIKOAK HEDATZEKO	30
3.1 1. HELBURU ESTRATEGIKOA. EAE-N BEROTEGI EFEKTUKO GASEN EMISIOAK GUTXITZEA ETA KLIMA-ALDAKETAREN ERAGINAK MURRIZTEA.	32
3.2 DIBERTSITATE BIOLOGIKOAREN GALERA ETETEA; EKOSISTEMAK ZAHARBERRITZEA ETA LURZORUAREN ARTIFIZIALIZAZIOA MUGATZEA.....	34
3.3 3. HELBURU ESTRATEGIKOA. BALIABIDEEN ERABILERA ERAGINKORRA ETA KONTSUMO ARDURATSUA SUSTATZEA	37
3.4 4. HELBURU ESTRATEGIKOA. INGURU GARBI ETA OSASUNGARRIA BERMATZEA	40
3.5 5. HELBURU ESTRATEGIKOA: SAILARTEKO ETA ERAKUNDEARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA INDARTZEA, INGURUMENAREN ALDAGAIA ARAU PROIEKTUETAN ETA POLITIKA PUBLIKOETAN SARTZEA SUSTATUZ.	42
3.6 6. HELBURU ESTRATEGIKOA: INTERESGARRIAK DIREN ERAGILE EKONOMIKO, ZIENTIFIKO-TEKNOLOGIKO ETA SOZIALAK ERANTZUKIZUKIDE EGITEA, MERKATUA INGURUMENAREN ALDE ERABILIZ ETA INFORMAZIOA ETA PRESTAKUNTZA HOBETUZ.....	45
JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	47
3.7 ADIERAZLE-SORTA	47
3.8 AGINTE-KOADRO INTEGRALA.	48
4. III. IEP-ARI ATXIKITAKO AURREKONTUA	51

I. ERANSKINA. Erreferentziazko dokumentu estrategikoak.

II. ERANSKINA. Parte-hartze eta egiaztatze prozesuaren emaitzak.



III. ERANSKINA.

Akronimoak.



1. SARRERA ETA III. IEP-REN TESTUINGURUA.

1.1 EAE-KO INGURUMEN POLITIKAREN ESPARRU JURIDIKOA

Euskal Herriko ingurumena babesteko 3/1998 Lege Orokorrak ezartzen du EAEko ingurumen-politika Ingurumeneko Esparru Programa (IEP) batean jasoko dela, lau urtetik behin egingo dela, Jaurlaritzak onartuko duela lehendabizi, eta Legebiltzarrerera eramango dela gero. Testuinguru horretan egin eta zabaldu dira dagoeneko Ingurumen Esparru Programaren bi aitzindariak, I. IEP, 2002-2006 aldiari dagokiona, eta II. IEP, 2007-2010 aldiari dagokiona.

Dokumentu hau EAEko III. Ingurumen Esparru Programa da, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak (ILPNAS) 2011-2014 aldirako egina. Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-plangintza eta ingurumen-jasangarritasunaren inguruko helburu eta lehentasunak biltzen dira Ingurumen Esparru Programan.

Inbestidurako ekitaldian, 2009ko maiatzaren 5ean, lehendakariak, gure hazkuntza ekonomikoaren eta gizarte ongizatearen eredia Ingurumenaren jasangarritasunak dakartzan erronketara egokitzeak duen lehentasuna aipatu zuen, *Aurrerapen jasangarri baterantz* izenburua duen atalean. Ideia hori gauzatzeko, hainbat konpromiso¹ planteatu zituen. Horien gaiak osorik edo hein batean landuko dira dokumentu honetan.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburua, Legebiltzarreko zegokion Batzordearen aurrean 2009ko ekainaren 22an egindako agerraldian, bat etorri zen lehendakariak adierazitakoarekin eta bere egin zuen Ingurumen Urtekaria 2008², eta ondorioztatu zuen erakutsi zela aurreko neurriak ez zirela nahikoa izan eta, horrenbestez, lehentasuna eman behar zaiola ingurumen-jasangarritasunari bultzada berri bat emateari, plangintza berritu baten bidez.

EcoEuskadi 2020 estrategia, garapen jasangarriaren alorrean Euskadiren helburu estrategikoak zehazten dituena, gobernuaren ekintza politikoaren zeharkako erreferentzia puntu berria da. Estrategia honen helburua gobernuko sail desberdinek formulatutako sektore estrategia eta planak biltzea da. Eta zentzu horretan, III. IEP honek ingurumenaren esparruan Eco Euskadi 2020 garapen jasangarriko estrategian antzemandako erronkak garatzen ditu.

1

- Klima-aldaketaren aurka borrokatzeko nazioarteko akordio horiek betetzea.
- Energia hobekuntzaren ingurumen planak ezartzea.
- Klima-aldaketaren aurkako borrokan ezarri behar diren politiken sail anitzeko garapena.
- Klima-aldaketaren aurkako Lege bat eratzea.
- Energia berriztagarrien erabilera sustatzea.
- Mugikortasun Jasangarriko Lege bat eratzea.

² Urtekariak ondoko egintza nabarmentzen zuen: Gizarte gisa geroz eta gehiago erabiltzen ditugu baliabide naturalak eta geroz eta hondakin gehiago eta kutsadura global handiagoa eragiten dugu. Horrenbestez, aurrera joaten jarraitu behar dugu, jasangarri izatera iristeko.

III. IEP 2010-2011 urteetan zehar eratu da, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzako Ingurumen Plangintzako Zuzendaritzak IEPren Idazkaritza Teknikoaren eta IHOBE Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren laguntzaz kudeatuta. Bi Talde eratu ziren III. IEP prestatzeko, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko arduradun politikoek eta teknikariek osatuak. Horiez gain, fase hauek ere izan zituen III. IEPren prestatetak:

- Gizartearen, industriaren eta zientzia eta teknologiaren alorreko 44 ordezkari bakoitzari bakoitzari gehiagok parte hartu zuen Ingurumen Foroa, non parte-hartze prozesurako lehenengo ekarpenak jaso ziren.
- Erakundeen arteko kontsulta eta egiaztatze prozesu zabala, non ingurumenari nabarmen eragiten dioten eskumenen titular diren Eusko Jaurlaritzako beste sailek beren ekarpenak egin baitzituzten. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren barruan bilerak egin ziren Lurralde Antolaketako Zuzendaritzarekin, Nekazaritza eta Abeltzaintzako Zuzendaritzarekin eta URArekin (Uraren Euskal Agentzia). Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailaren barruan bilerak egin ziren Garraio Azpiegitura Zuzendaritzarekin eta Etxebizitza Zuzendaritzarekin. Azkenik, Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Energia eta Meategien Zuzendaritzarekin eta Garapen Industrialeko Zuzendaritzarekin bilerak egin ziren. Halaber, bilera bat egin zen Foru Aldundiekin III. IEP aurkezteko.
- Euskadiko udalerrri desberdinen ordezkarien lankidetzak, Udalsarea 21 Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarearen bidez.
- Parte-hartze prozesu espezializatua, enpresa munduko, gizarteko eta zientzia eta teknologiaren alorreko eragileen sorta zabal eta askotarikoaren eskutik. Horrela, esparru zientifiko-teknologikoari dagokionez, bilerak egin ziren Tecnalia eta IK-4 korporazioen teknologia zentro desberdinetako ordezkariekin. ACLIMA-ren bidez (Ingurumen Industrien Kluster Elkarte) bilerak egin ziren Euskadiko enpresa ordezkari desberdinekin. Eta gizarte zibil antolatuari dagokionez, bilerak egin ziren EAEko ingurumen GKE desberdinen ordezkariekin. Azkenik, esparru akademikoari dagokionez, bilera bat egin zen EHUko eta Mondragon Unibertsitateko irakasle eta ikertzaile batzuekin.
- Hau herritarrei zuzendutako prozesu parte-hartzailea izan da, ekarpenak jasotzeko bereziki prestatutako hainbat web tresnaren bidez bideratua. ILPNAS beraren web orria eta III. IEPren webgunea Irekian. Aldi berean, hainbat sare sozial erabili ziren III. IEP eratzeko prozesuaren gaineko interesa zuen ororekin harreman zuzena izateko.

Euskal ingurumen-politikaren printzipio gidariak, III. IEPren jardute guztien goiburua eta orientagarri direnak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzko 3/1998 Lege Orokorrean hasieran ezarritako eta oraindik indarrean daudenak dira; alegia:

- Baliabideak modu jasangarrian aprobetxatzeko printzipioa.
- Zuhurtasun- eta prebentzio-printzipioak.
- Kalteak zuzentzeko (batez ere jatorrian) printzipioa.
- Kutsatzen duenak ordaindu behar izatearen printzipioa.



III. Ingurumen Esparru Programa 2011-2014

- Erantzukizun pertsonala nahiz solidarioaren, eraldatutako inguruaren zaharbertzearen eta betetze subsidiarioaren printzipioak.
- Erantzukizun partekatuaren eta herritarren partaidetzaren printzipioa, pertsona fisiko zein juridikoei aplikatua, informazioa eta komunikazioa sustatuta.
- Administrazio publikoen arteko elkarlanaren eta lankidetzaren printzipio orokorrak, bai eta erakunde publikoen eraginkortasuna eta koordinazioa, ingurumenaren babesa politika sektorial guztien definizio eta exekuzioan haien elementu propio moduan txertatzeko oinarri gisa.

Printzipio horiek Europako Batasunaren Garapen Jasangarriaren Printzipio Gidariei buruzko Adierazpenean (2005) formulatutako printzipioez aberastu eta osatzen dira. Haien artean, hauez:

- Belaunaldien barneko eta arteko ekitatearen printzipioa.
- Herritarrek informazioa jasotzeko eskubidea.
- Politiken eta gobernantzaren arteko koherentziaren printzipioa.

Bestalde, EcoEuskadi 2020 planak printzipio integratzaile bat formulatzea proposatzen du, hauxe:

- Ekitatea, justizia eta bizitzaren babesaren printzipioa, garapenaren eta ongizatearen kontzeptu berri baten baitan.

Horren guztiaren osagarri, halaber biltzen dira euskal botere publikoen jarduna gidatu eta gobernatu behar duten printzipio orokorrak, Emakume eta Gizonen arteko Berdintasuna Sustatzeko 4/2005 Legeak ezarritakoak; alegia:

- Tratu-berdintasuna, aukera-berdintasuna, aniztasuna eta desberdintasunarekiko begirunea, genero-ikuspegia txertatzea, ekintza positiboak, sexuaren araberako estereotipoak ezabatzea, ordezkariak orekatua eta lankidetzak eta koordinazioa.



1.2 EAE-KO GIZARTEAREN INGURUMEN ESKAERAREN AZTERKETA

EAEko ingurumen-politikak euskal biztanleen kezka eta beharrei erantzun behar die. Gizarteak kalitatezko ingurumen-ingurune bat eskatzen du, baina aldi berean eragile bat da, eta bere jarduerak, eta kontsumo eredu eta moduek eragina dute ingurumenean.

Horregatik beharrezkoa da herritarrek garrantzi handiena duten ingurumen-gaiei buruz zein iritzi duten eta iritzi horiek nola aldatu diren jakitea, ingurumen-alorrean politikak eta jarduerak hobetzeko xedearekin.

Euskadiko Ekobarometro sozialak euskal biztanleek ingurumenari buruz egiten duten balorazioa aztertzea ahalbidetzen du. Horrela, EAEko ingurumen-politika diseinatzerakoan, kontuan hartzen dira ingurumen-alderdi desberdinei buruz aipatu azterlanak jasotzen dituen gizartearen eskari eta iritziak. Azterlan hau lau urtean behin egiten da. Esaterako, 2008. urtean egin zen azterlanean, jarraian adierazten diren puntuak nabarmendu behar dira, aldi berean kontuan hartu zirenak III. IEP egiterakoan:

- Ingurumenaren babesa eta kontserbazioa lehentasunezko helburu bat da EAEko geroz eta pertsona gehiagorentzat, eta egungo lehentasunezko helburuen zerrendan laugarren postuan dago (aberastasuna sortzea eta enplegua gehitzeko; pobrezia murrizteko; eta gatazka politiko eta soziala murrizteko helburuen atzetik). Nabarmenezkoa da, EAerako 10 urte barrurako helbururik garrantzitsuenen artean, biztanleek gai hau zerrendako lehen postuan kokatzen dutela.
- Egun, EAEko hiru biztanletik batek adierazten dute ingurumenak asko kezkatzen dituela.
- EAEko lau biztanletik hiruk adierazten dute nahikoa kezkatzen dituztela klima-aldaketak, eta ia % 65ek adierazten dute fenomeno honek etorkizunean eragina izango duela eurengan. Biztanleen % 56k adierazten dute ibilgailuak direla emisioen iturri nagusia.
- Aldiz, CO₂ emisioei dagokienez ekarpenik egiten dutela uste duten biztanleen kopurua % 63koa da eta beren jarduerak klima-aldaketa murrizteko ekarpen txikia edo inolako ekarpenik egin ezin dezaketela uste dute. Horrela, euskal biztanleek klima-aldaketari eta honek etorkizunean esparru pertsonalean izango dituen ondorioei dagokienez erakusten duten kezka handiaren eta ondorio horiek murrizteko portaera pertsonalei emandako garrantzi txikiaren artean disoziazio handia dagoela ikus daiteke. Hau da, arazoaren garrantzia azpimarratzen da baina ez dira hori konpontzeko norberari dagozkion inplikazioak norbere gain hartzen, hirugarren batzuei egozten zaizkie.
- EAEko biztanleen ustez, hauek dira ingurumen-arazoak konpontzeko neurri eraginkorrenak: ingurumenaren gaineko kontzientzia orokorra handitzea (% 62), kutsaduraren eragileei isun handiak jarriko dizkieten lege zorrotzagoak egitea (% 58) eta ingurumen-legedia hobeto aplikatzea (% 47). Hemen kontraesan bat dago Eko Barometroaren iritzi sozialaren emaitzen eta EAEn ingurumenaren ebaluazioaren jarraipenaren emaitzen artean. Azken urteotan enpresek ahalegin handia egin dute beren ekoizpen prozesuetan erabilgarri duden teknologia onenak sartzeko (horren erakusgarri, BPGren baliabide erabilera murriztu da; berotegi

efektuko gasen (BEG) emisioak murriztu dira sortutako KWo bakoitzeko, etab.) eta emaitza nabarmenak lortu dira (enpresek beren emisioak % 34 murriztu dituzte 1990etik), baina etxeetan geroz eta energia gehiago kontsumitzen da, ibilgailu pribatua geroz eta gehiago erabiltzen da, eta oro har, mota guztietako geroz eta produktu gehiago kontsumitzen dira.

- Aurreko puntuan adierazitakoaren aurka, euskal biztanleak ingurumena babesten laguntzeko neurri handiagoan garatzeko prest egongo liratekeen neurriak ondokoak dira: hondakin/zaborren sailkapena gero birziklatzeko (% 78), garraio publikoa gehiago erabiltzea (% 59) eta etxean energia kontsumoa murriztea (% 52).

Esparru zehatzei dagokienez, 2008ko Ekobarometro Sozialak erakusten du EAEko biztanleentzako ingurumen-gai kezkgarriena klima-aldaketa dela. Bigarren maila batean daude uraren kutsadura eta pertsonen eragindako hondamendiak (petrolio isuriak, istripu industrialak, etab.). Hirugarren maila batean airearen kutsadura adierazten da eta jarraian hondamendi naturalen eta biodibertsitatearen galeraren gaineko kezka.

Hau eta euskal biztanleak kezkatzen dituzten beste ingurumen-gai batzuk (baliabide naturalak agortzea, hondakin eta zaborrak gehitzea, hiri arazoak, etab.) IEP honetan sartu dira eta bai III. IEPren helburu estrategiko eta operatiboetan bai dagozkien jardute lerroen diseinuan jaso dira.

1.3 EAE-KO INGURUMEN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

Kapitulu honetan aurretik egindako lanaren emaitzak laburbiltzen dira:

Diagnostiko eta ebaluazio fasean egindako jarduerak

Egoera eta diagnostiko dokumentuak berrikustea	Bi diagnostiko dokumentuak berrikustea: Ingurumenaren Egoera 2009 eta Euskadiko Ingurumen Profila 2009. Bi dokumentu horietatik erazi ziren diagnostikorako indar-idea nagusiak.
2007-2010 II. IEPren ebaluazioa	2007-2010 II. IEPren emaitzen ebaluazioaren aurrerapena. 2007-2010 II. IEPren ebaluazio metodologiko eta kontzeptuala, non indar eta hobetzeko aukera nagusiak identifikatzen diren.

1.3.1 Ingurumenaren egoera

Ingurumenaren egoera orokorra aldizka ebaluatzen da EAEko Ingurumenaren Egoera izeneko txostenaren bidez. Azkena 2009. urtekoa da. Informazio hau urtero osatzen da Ingurumen Esparru Programaren konpromisoen aurrerapen maila ebaluatzen duen txosten baten bidez, Ingurumen Profila izenekoak. Argitaratu den azkena 2009koa da. Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak halako gai jakin batzuei buruz eguneratuta daukan informazioari esker osatu ahal izan da

EAEko ingurumen-diagnostikoaren ikuspegia. Jarraian diagnostiko horren elementu batzuk laburbiltzen dira.

Euskal Autonomia Erkidegoa geografikoki lurralde txikia da, biztanleria dentsitate handia eta kontzentrazio ekonomiko-industrial indartsua duena. Industrializazioaren prozesu historikoaren aztarnak oso agerikoak dira eta iraganetik oinordetzan hartutako ingurumen pasiboa bizia da. Azken hiru hamarkadetan ahalegin handia egin da erakunde, enpresa eta gizartearen aldetik garapen eredu ingurumenaren aldetik jasangarria den garapen batetik hurbilago dauden jarraibideetara egokitzen joateko. Aurrerapenak asko eta garrantzitsuak izan dira, baina oraindik ez da lortu inflexio puntu argi eta garden bat, euskal ekonomia jasangarritasunaren bidean barrena sartu dela ondorioztatzea ahalbidetzen duena; dena den, badago arrazoirik norabide zuzenean ematen ari diren pauso ugariak datozen urteotan beren emaitzak emango dituztela sinesteko.

Azken urteotan erresistentzia handiena erakutsi duten ingurumen-arazoaren artean ondokoak aipatu behar dira: a) Lurraldearen pixkanakako artifizializazioa eta zatiketa; b) kutsatutako lurzorua erremediatzeko nahikoa ez den erritmoa; c) sektore zehaztugabeetatik datozen berotegi efektua duten gasen emisioak; d) biodibertsitatearen eta ekosistemen zerbitzuen kontserbazioa, Natura 2000 sareko espazioen kudeaketa egokia barne; eta e) ibaiak osorik berreskuratzea Uraren Esparru Zuzentarauaren eskakizunen arabera; energia berriztagarrien hedapena; ingurumenaren aldetik positiboak diren pertsona eta merkantzia garraio moduen nagusitasuna. Esparru hauetan azken urteotan egindako aurrerapenak ez dira nahikoa izan eta bultzada berri eta indartsua behar dute.

Klima-aldaketaren alorrean nabarmentzekoa da 2009an emisioak nabarmen murriztu zirela aurreko urtearekin alderatuta, % 10. Erreferentzia urteari dagokionez, 1990, +% 6 ziren, beraz, sinesteko modukoa da 2008-2012 aldian Klima-aldaketaren aurka Borrokatzeko Euskal Planaren +% 14 helburua lortu daitekeela.

Eskura dagoen Inbentarioren berrienaren arabera, 2009koa, Euskadin BEG gehien sortzen dituzten sektoreak ondokoak dira: energia sektorea (guztizko emisioen % 40), garraioa (% 23) eta industria (% 22).

Sakonki aztertzen badugu zer gertatzen den energia, garraio eta industria sektoreetan, ikusten dugu teknologiak 10 urtean erdira murriztu dituela Euskadin sortzen den elektrizitatearen (kWo) berotegi efektua duten gasen emisioak; autoek, eraginkortasunean egindako hobekuntzengatik, are gehiago murriztu dituzte emisioak ibilitako km bakoitzeko; eta enpresen euren emisioak % 34 murriztu dituzte 1990etik. Beharrezkoa da esparru hauetan ahalegin gehiago egitea, baina nabarmendu behar da ahalegin horien ibilbide ona ilundu egiten dutela etxeetatik egiten den geroz eta kontsumo handiagoak eta ibilgailu partikularren geroz eta erabilera handiagoak.

Lehenengo kasuan hobekuntzak finkatzeko esparru bat dagoen bitartean (energia enpresetan eta industrietan CO₂aren prezioa barneratzea, eskura dauden teknika onenak aplikatzea eta ibilgailuetan erregai kontsumo txikiagoa eta emisio gutxiagoa dakarten estandarren araudia), ez da gauza bera gertatzen banako esparruan eta herritarrak ez daude oso kontzientziatuta eta Herri Administrazioaren aldetik ere ez da exenplua ematen (energia eraginkortasunaren neurrien ezarpena urria izan da; lurralde eta hirigintza plangintzek ez dute mugikortasun jasangarriko eredu bat bultzatzen, etab.).

Biodibertsitateari dagokionez, Euskadiko azaleraren herenean, babesteko interesekotzat izendatutako 68 habitat mota daude. Horien egoera eta espazioen, fauna eta flora espezieen eta paisaien egungo bilakaera oso desberdina da.

Azken urteotan, abian ipinitako ahalegin eta ekimenak gorabehera, biodibertsitateak jasaten dituen presioetako batzuk gutxitu beharrean handitu egin dira (lurraldearen zatiketa, konektibitate galera eta lurraldearen artifizializazioa eta espezie inbaditzaileen presentzia). Ekonomiaren sektoreen artean bereziki garrantzitsuak dira zenbait elementu, gure paisaia eta biologia dibertsitatea babesteko: hirigintza presioa, garraiorako azpiegituren eraikuntza eta nekazaritza zein basozaintza sektoreen kudeaketa.

Biodibertsitatearen galerari gogor eragiten dioten beste zenbait faktore dira kanpoko espezie inbaditzaileak sartzea eta hedatzea, baliabide naturalak gehiegi ustiatzea, gune babestuen kudeaketa desegokia, klima-aldaketa eta ez biodibertsitateari berari ez ekosistemen zerbitzuei baliorik esleitu ez izana. Klima-aldaketa eta hark eragiten dituen aldaketak ere biodibertsitatearen kontrako presio-faktore garrantzitsutzat hartu beharko dira.

Animalia- eta landare-espezieen bilakaeraren interpretazioak panorama zalantzarria planteatzen du Espezie inbaditzaileen alorrean, berriz, ekintza sorta zabala gauzatzen ari da arazoaren munta finkatzeko eta espezie horiek kontrolatzen eta ezabatzen jarduteko. Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendak geroz eta espezie gehiago jasotzen ditu, talde gehiagotakoak, ezagutza areagotzen doalako eta, agian, horien kontserbazio egoera okerrera egiten ari delako. Zentzu horretan, kontserbazio-estrategia aktibo bati ekiten ari da, gizarte guztia tartean sartuz, Udalei emandako diru-laguntzen deialdien bidez, boluntario-taldeen eta Zaintza Entitateen bidez, espezieak zerrendatik kentzeko aukera egia bihur dadin, horien kontserbazio-egoera hobea den heinean.

Espazioei dagokienez, Natura 2000 Sarerako Kontserbazio Eremu Bereziak izendatzeko jarduten ari da, Europako Batasunerako intereseko habitat eta espezieak kontserbatzeko helburuak eta neurriak definitzen, hain zuzen.

Materialen kontsumoaren eta hondakinen sorkuntzaren arloan, materialen kontsumoa da urtetik urtera gehien handitzen den aldagaia. eta hondakinen sorkuntzari dagokionez, haien tipologiaren arabera joerak desberdinak dira, -hondakin arriskutsu gehiago sortu delako nahiz eta ez arriskutsuak eta hiri hondakinak gutxitu-. Ekonomia garapenaren eta kontsumoaren ereduak gero eta baliabide gehiago kontsumitzea eragin du; ur kontsumoa da salbuespena, behera egin baitu horrek. Hondakinen birziklatzea eta balorizazioa dela eta, ostera, bada hoberako joera orokorra.

EAEn baliabideen kontsumoak gora egin du. Material Beharra Guztira (MBG) 2000. urtean biztanleko 106 tonakoa izatetik 2005ean 111 tonakoa izatera iritsi zen. Bestalde, MEK (Materialen Etxeko Kontsumoa, EAEn benetan kontsumitzen direnak) % 18 gehitu da 2000 eta 2005. urteen artean.

Industriaren eta nekazaritza-elikagaigintzaren sektoreek aparteko arreta merezi dute, berek ekoiztako hondakinen portzentaje handia dela eta: bien artean Euskadin sortutako hondakinen % 80 egiten dute ia. Kudeaketari dagokionez, hondakindegien egoerak, batez ere Gipuzkoan, prebentzio eta birziklatzera bideratutako ahaleginak areagotzera behartzen du.

Azken urteotan, EAEko **ur** eskariak beheranzko joera nabaria izan du, pixkanaka BPGarekiko desakoplatuz joan delarik. EAEko ur masen kalitateak pairatzen dituen presio nagusiak industria eta hiri garapenak, ibai sarera egindako isuriek eta abeltzaintzak eraginak dira, Itsasertzaren eta estuarioen egoera ekologikoak hobera egin du azken urteotan, baina EAEko erreka eta ibaien % 60k ez ditu betetzen Uraren Esparru Zuzentarauak ezarritako ingurumen-helburuak. Klima-aldaketak eragindako ondorioek eragina izango dute EAEko uraren eskuragarritasunean eta kalitatean.

Airearen kalitateari dagokionez, esan dezakegu kalitate maila ona dela oro har EAEko lurralde osoan eta batez ere asko hobetu dela azken urteotan (bereziki partikulen urteko batez besteko kontzentrazioari dagokionez). Oraindik udalerriren batean urteko maila gainditzen da, bereziki partikulei dagokienez (PM10 zehazki) eta geroz eta handiagoa da ibilgailuen zirkulazioaren eragina, industriaren kaltetan. Garraioa, halaber, **kutsadura akustikoaren** sortzaile nagusietako bat bihurtu da.

Bestalde, **lurzoruaren artifizializazioa** etengabe handitu da urtez urte. 2008an urtean zehar bizilekurako, jarduera ekonomikoetarako eta sistema orokorretarako kalifikatutako lurzorua gora egin du, guztira 601 hektarea gehiago. Etxegintzak eta komunikazio bideak, industria poligonoak eta garraio azpiegiturak eraikitzeak EAEko lurzorua zati handi bat (% 8 inguru) artifizializatzea ekarri du.


Eraikuntzaren sektorea mantsotu izanak lurzoru eraikigarri gehiagoren eskaera jaits litekeela iradoki lezake. 2010. urtean, obra baimen gehienak birgaitze lanak egiteko eskatu ziren; hori joera positiboa da. Berreskuratu den lurzoru kutsatuen azalerak 2005ez geroztik gora egiten jarraitzen badu ere, 2007tik aurrera, ordea, ikertutako lurzoruen erritmoa nabarmen urritu da.

1.3.2 II. IEPren ebaluazioa

2010. urtean amaitu da II. IEP (2007-2010) programari dagokion ingurumen-plangintza eta, horrenbestez, horren azken ebaluazioa egin behar da. Emaizen ebaluazioa konpromisoak lortzearen ebaluazioan zehazten da (eta beraz, helburu estrategiko eta xedeak lortzean).

Emaizen aurretiko ebaluazioa

Ingurumen Esparru Programa 2007-2010 bost xederen inguruan egituratzen zen, hamaika helburu estrategikotan zabaldua. Halaber, helburu estrategiko bakoitzari konpromiso kopuru aldagarri bat zegokion, guztira 44 ziren.



II. IEPren azken ebaluazio osoa Euskadiren Ingurumen Profila 2010 dokumentuan argitaratuko da.

Balorazioa II. IEPren 44 konpromisoetako bakoitzaren banako betetze mailaren ebaluazioan oinarrituta egiten da (ikus erantsitako irudia).

III. Ingurumen Esparru Programa 2011-2014


Jarraian II. IEPren konpromisoen lorpen mailaren eta joeren banako ebaluazioa aurkezten da.

1. HE- Aire garbia		1. K- Aire kalitatearen indizea	2. K- Airearen kalitatea, PM 10	3. K- Airearen kalitatea, PM 2.5	4. K- NOx; SO2; GOVNM emisioak	5. K- Zarata					
2007-2010 joera globala											
Helburuen betetze maila											
2. HE- Uraren kalitate ona		8. K- Azaleko urak	7. K- Asko aldatutako urak	8. K- Lurrazpiko urak	9. K- Hinko hondakin urak	10. K- Bainuko urak	11. K- Kontsumo ura				
2007-2010 joera globala											
Helburuen betetze maila											
3. HE- Lurzorua irekia eta zuzentzea		12. K- Egoeraren hasierako bostena	13. K- Lurzorua berreskuratzea, erabilera berriekin	14. K- Lurzorua berreskuratzea, erabilera berriekin gabe	15. K- Aktibo ez dauden hondakindegiak kontrolatzea						
2007-2010 joera globala											
Helburuen betetze maila											
4. HE- Baliabide naturalen kontsumo arduratsua		16. K- Kontabilizatu gabeko ura	17. K- Ur eskaria	18. K- Baliabideen kontsumoa							
2007-2010 joera globala											
Helburuen betetze maila											
5. HE- Energia kontsumo eta ekoizpen iraunkorra sustatzea		19. K- Energia aurreztea	20. K- Energia intentsitatea	21. K- Berrizlagarriak eta baterako sorkuntza	22. K- Bioerregaiak						
2007-2010 joera globala											
Helburuen betetze maila											
6. HE- Hondakinak murriztea eta 0 isuria, tratamendurik gabe		23. K- Industria hondakinak eta ekonomia	24. K- Hondakin arriskutsuen birziklatzea	25. K- Eraikuntza eta eraspain hondakinak	26. K- Hondakin ez arriskutsuen birziklatzea	27. K- Hiri Hondakin Solidoen birziklatzea	28. K- Hiri Hondakin Solidoen tratamendua, isuri aurretik				
2007-2010 joera globala											
Helburuen betetze maila											
7. HE- Gure dibertsitate biologikoa mantentzea		29. K- Galzorian dauden espezieak	30. K- Tokiko baso azalera	31. K- Hezeguneak zaharberitzea	32. K- Nekazaritza eta ingurumen neurriak dituen azalera	33. K- Nekazaritza ekologikoa	34. K- Ziurtapena duten baso usiakuntzak	35. K- Espezie exotikoak	36. K- Natura 2000 Sarea	37. K- Paisaia bereziak	
2007-2010 joera globala											
Helburuen betetze maila											
8. HE- Mugikortasunaren kudeaketa eredu berri baterantz		38. K- Bidaiarien banaketa modala	39. K- Merkantzien banaketa modala								
2007-2010 joera globala											
Helburuen betetze maila											
9. HE- Lurraldearen erabilera orekatu bat lortzea		40. K- Hirigintzak eragindako artifizializazioa	41. K- Azpiegiturak eragindako artifizializazioa								
2007-2010 joera globala											
Helburuen betetze maila											
10. HE- BEGen emisioak mugatzea		42. K- BEGen emisioak									
2007-2010 joera globala											
Helburuen betetze maila											
11. HE- Klima aldatetara egokitzea		43. K- Klima aldatetarekiko urrortasuna	44. K- Urpean gera daitezkeen guneen artifizializazioa								
2007-2010 joera globala											
Helburuen betetze maila											


Irudian ikonoekin konpromisoaren beraren lorpen maila irudikatu da eta gezi batekin irudikatu da konpromisoa ebaluatzeko erabilitako adierazleak jasandako ingurumen-joera.

Konpromisoen lorpen mailari dagokionez (aurpegiak), balantze globala ondokoa da: horietatik 18 (% 41) lortu dira edo lortu daitezke 2010ean; 8 konpromisok (% 18) nahikoa ez diren aurrerapenak dituzte eta aurreikusten da 10 (% 23) ez direla lortuko. Gainerako 8en kasuan (% 18) ez dugu konpromisoaren egoera diagnostikatzeko adinako daturik edo datu garrantzitsurik.

Bestalde, adierazleek (geziek) jasandako ingurumen-joerari dagokionez, antzematen da eboluzioa positiboa dela konpromisoen % 59aren kasuan, gurutzatua % 25arentzat, negatiboa % 5arentzat eta ez dago datu esanguratsurik % 11rentzat.



Ondoko irudiaren bidez II. IEPren xedeen arabeko konpromisoen banako ebaluazioak sartu dira.





1. Xedean, ingurumen-kalitatea, aire-kalitatearen konpromisoen lorpena nabarmentzen da (bereziki lehentasuneko kutsatzaileei dagozkienak, nagusiki partikulak); hiriko hondakin-uren arazketa; bainurako eta kontsumorako uren kalitatea; baita lurzoruaren kutsadura prebenitzeko neurriak ere. Hobekuntza alderdiei dagokienez, ibai eta estuarioen egoera ekologikoan jartzen dute arreta; baita kutsatutako lurzoruek erremediatzeko duten erritmoan ere, eta hori nahikoa ez dela ulertzen da.

2. Xedean, materialen kontsumoa eta hondakinen kudeaketa, ingurumen-joeretan jasotako hobekuntzak eman dira, bereziki hondakinen balorizazioari buruzkoak, nahiz eta helburu batzuk ez diren lortu.

3. Xedean, biodibertsitatearen babesa, aurrerapen nagusiak nekazaritza eta baso kudeaketa jasagarrian eta ingurumen-zaharberritzean eman dira, baina oraindik hobekuntza tarte handia dago espazioak eta espezieak babesteko tresnen garapenari eta ezarpenari dagokienez.

4. Xedean, lurralde oreka, aurrerapen nagusia lurzoruaren artifizializazioa jaitea izan da; mugikortasunaren jasagarritasunak, aldiz, ebatzi ez den erronka handiagoa planteatzen du.

5. Xedean, klima-aldaketaren mugapena, aurrerapen handiak eman dira, bai arintze osagarrian, bai egokitzean.

Globalki, ulertzen da II. IEPren emaitzak baikorrak izan direla eta kasu batzuetan konpromisoak gehiegizkoak zirela. Dena den, hobekuntza tarte bat dago eta hori lortzen saiatuko da III. IEP hau.

1.4 EAE-N INDARREAN DAGOEN ETA SORTZEN ARI DEN PLANGINTZA

III. Ingurumen Esparru Programa, ingurumen-eragina duten gure lurraldeko plan desberdinen tresna egituratzailea da.

Programa hau zuzenean lotuta dago EcoEuskadi 2020 estrategiarekin. Lehendakariak honela definitu zuen: EcoEuskadi 2020, garapen jasagarriko eredu berri baterako zeharkako erreminta da. Horren bitartez, baliabideen kontsumoaren gutxitzearekin gure Herrialdearen garapen orekatua lortuko dugu. Garapen ekonomikoa, ongizatea eta gure ingurumen-aktiboak elkarren artean lotzen diren ekonomia berrira abiatzeko motor nagusienetakoa bultzatuko dugu...

EcoEuskadi 2020 Garapen Jasagarriaren Estrategian bederatzi helburu estrategiko ezarri dira; eta horietako hiruk batez ere ingurumen izaera dute:

1. Euskadi ekonomia berritzaile, lehiakor, ekoeraginkor eta ireki bihurtzea.
4. Gure natur baliabideei eta biodibertsitateari eustea, lurraldea, azpiegiturak, ekipamenduak eta etxebizitzak errespetuz eta orekaz antolatuta.
5. Jatorri fosileko energiekiko mendekotasuna minimizatzea, berotegi efektuko gas isuriak murriztea eta klima aldaketaren eraginak minimizatzea.

EcoEuskadi 2020-ren ondoren sortutako hausnarketan arabera, egungo ekoizpen-ereduak lurzorua baliabide naturalaren erabilera oso intentsiboan ekarri du (eta dakar). Ingurune naturalak, paisaiak eta biodibertsitateak hiri-okupazioaren eragina jasan dute. Hala ere, gure bizi-kalitatea biodibertsitatearen mende dago eta hau nahitaez lurraldearekin lotuta dago. Izan ere, habitaten aldaketa eta eraldaketa da biodibertsitatea pobretzearen eta desagertzearen arrazoi nagusia. Ezinbestekoa da, beraz, balio natural handiak kontserbatzen dituen lurraldea zaintzea, bere balio ekologiko eta paisajistikoak babestuz.

Aldi berean, EcoEuskadi 2020 estrategiaren beste lau helburu estrategikok harreman zuzena dute ingurumen alderdiekin:

6. Lurralde barruan egituratzeko eta kanpoaldearekin lotura lehiakorra izateko aukera emango duen mugikortasun integratuko eredu jasangarriago bat garatzea.
7. Kalitatezko hezkuntza eta balio sistema sortzea, eskola arrakasta lortzera bideratutakoa, malgua eta, hezkuntza zein trebakuntza edukien aldetik, lan merkatuak eta gizarteak bizitza osoan zehar eskatzen dituzten gaitasunetara egokitua, jasangarritasuna arlo guztietan barne hartuta.
8. Berritzailea, eraginkorra, abegitsua eta herritarrentzat gardena den administrazio publiko bat ezartzea.
9. Euskadik Milurtekoko Helburuak betetzen, eta, oro har, herrialde txiroenek garapen jasangarria lor dezaten laguntzea.

Jasangarritasuneranzko plangintzaren erreferentzia esparru garrantzitsu honekin lotzeaz gain, III. IEP Euskadiko sektore eta ingurumen-plangintzaren trantsizio une batean egin da, non hainbat plangintza ziklo itxi eta berriro hasi diren. Horrela, laster amaituko da Klima-aldaketaren Aurka egiteko 2008-2012rako Euskal Planaren, indarrean diren Lurralde Antolamenduko Gidalerroen eta 2002-2012 Garraio Jasangarriaren Gidaplanaren indarraldia. Halaber, III. IEP honen indarraldiaren epean amaituko dira ingurumen-plan batzuk, esaterako, Hondakin arriskutsuen eta ez arriskutsuen prebentzio eta kudeaketa 2008-2011 Planak eta Lurzoru kutsatuen 2007-2012 Plana.

Era berean, eta modu osagarrian, izapidetzari dagokionez aurreratuta daude ondo plangintza tresnak: 2020 Klima-aldaketaren Plana; 2015 Euskadiko Barne Arroen Plan Hidrologikoa; Euskadiko 2020 Energia Estrategia; Mugikortasun Jasangarriko Gidaplana eta Lurralde Antolamenduko Gidalerro berriak.

III. IEPrako bereziki garrantzitsuak dira Saila prestatzen ari den lege arau berriak, laster Eusko Legebiltzarrak izapidetzeko aurkeztuko direnak: Klima-aldaketaren Euskal Legea eta Ingurumen Lege Orokor berria, indarrean dagoen 3/1998 Legea ordezkatzeko duena. Duten izaera integralarengatik (hau da, lehenengoak klima-aldaketarekin eta bigarrenak ingurumenarekin lotutako sektore esparru guztietan esku hartzen dute) euskal ingurumen-politika dinamizatu eta III. IEP honen helburu estrategikoak lortzen lagundu behar dute.

Horrela, EcoEuskadi 2020 estrategiak dakarren jasangarritasuneranzko esparru estrategikoa; III. IEP honekin batera; klima-aldaketaren etorkizuneko legeak; ingurumenaren eta mugikortasun jasangarriaren lege orokorra; Klima-aldaketaren Euskal Plana 2020, 2020 Energia Estrategia eta Lurralde Antolaketako Arteztarauen gainean egiten ari diren berrikuspenera eta Euskadiko Barne Arroen Plan Hidrologikoa 2015 Euskadiren jasangarritasunaren agendari ematen zaion bultzada handi baten muina dira.



Gainera, III. IEP Eusko Jaurlaritzaren beste sektore plan batzuekin lerrokatuta geratzen da, besteak beste: Euskal Nekazaritza Sektorearen Lehiakortasun Plana, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2015, trenbide eta tranbiaren 20-20 Euskadi Trenbide Plana 2010-2013, Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzaren Gidaplana 2010-2013, Enpresa Lehiakortasunaren Plana 2010/2013, Enpleguaren Euskal Estrategia 2011/2013, Osasunaren Euskal Plana 2012/2020, Euskal Autonomia Erkidegoaren Landa Garapen Jasangarriaren Programa 2007/2013.

Ingurumen-alorreko foru plangintzari dagokionez, nabarmendu behar dira Bizkaiko Garapen Jasangarriaren Estrategia (Bizkaia 21), duela gutxi Gipuzkoan egin dena (Gipuzkoa +20) eta Arabako Garapen Jasangarriko Estrategia. Azken honi dagokionez, oraindik eraketaren azken prozesuan dagoen arren, nabarmendu behar da kapital naturalaren babesa eta hori balioan jartzea, Arabako Lurralde Historikoaren kudeaketa jasangarriko ardatz nagusietako baten moduan. Bestalde, Gipuzkoa +20 Estrategiak Gipuzkoako etorkizunari aurre egiteko beharrezko eraldaketa handietako bat ingurumen eta lurralde esparruari buruzkoa dela uste du, ibaien berreskurapenarekin, mugikortasunarekin, klima-aldaketarekin eta energiarekin lotutako gaiak landuz. Azkenik, Bizkaia 21 Programak printzipio gidari nagusi gisa du erabakiak hartzerakoan ekonomia, ingurumena, gizartea eta kultura alderdiak kontuan hartzea, eta, besteak beste, ondasun natural komunei, kontsumoari eta bizibide arduratsuei, edo mugikortasunari eta zirkulazio murrizketari buruzko konpromisoak hartzen ditu bere gain.

Azkenik, euskal udalerrietako Tokiko Agenda 21-en prozesuen garrantzia adierazi behar da, Euskadin ingurumen-politikak hedatzeko funtsezko tresnak baitira. Udalsarea 21, Jasangarritasunerako Euskal Udalerrien Sarea, EAEko udalerrietako Tokiko Agenda 21ak dinamizatu eta Tokiko Ekintzako Planen gauzatzea bultzatzen duen koordinazio- eta lankidetzeta-foroa da. Egun, Udalsarea 21 188 euskal udalerririk osatzen dute.

1.5 INGURUMEN POLITIKEN ESPARRUA ETA JOERAK

1.5.1 *Tresna Estrategikoak*

EAEko ingurumen-politika eratzeko ezinbestekoa da aurretik kanpo ingurumen-politika aztertzea, beste esparru batzuetan egindako politiken gakoan gainean orientatu dezakeelako, erronka komunei edo antzekoei aurre egiteko.

Europako esparru erreferentzia garrantzitsuenetako bat Europa Estrategia 2020 da, XXI. menderako Europako ekonomia sozialaren ikuspegi bat. Estrategia hori formulatuta lortu nahi den helburua da Europar Batasuneko ekonomia adimendun, jasangarri eta integratzaile bilakatzea, enplegu, produktibitate eta gizarte kohesio maila altukoa. Haren lehen lehentasuna da hazkundea adimenduna izatea, eta bigarrena, berriz, hazkundea jasangarria izatea. Lehenak jakintzan eta berrikuntzan oinarritutako ekonomiaren garapena du ardatza, eta bigarrenak, berriz, baliabideak eraginkorrago erabiltzen dituen eta berdeagoa eta lehiakorragoa den ekonomia bat garatzea.

Esparru honetan zehazten den ingurumen-erronka nagusia da klima eta energiaren alorretan "20/20/20 helburua" lortzea -alegia, berotegi efektuko gasen emisioak murriztea, % 20 behintzat, 1990eko mailarekiko; energia iturri berriztagarrietatik lortutako energia gure



azken energia kontsumoaren %20ra iristea eta eraginkortasun energetikoa %20 handitzea. Europa Estrategia 2020-k, gainera, “baliabideak era eraginkorren erabiltzen dituen Europa” baterantz batera joatea planteatzen du, hazkunde ekonomikoa eta baliabideen erabilera bereizten laguntzea, karbono emisio gutxiko ekonomia bateranzko aldaketa babestea, energia iturri berriztagarrien erabilera areagotzea, garraio sektorea modernizatzea eta energia eraginkortasuna sustatzea.

Bestalde, Garapen Jasangarriko Europako Estrategia, 2001ean formulatua hasiera batean eta gerora 2006an eta 2009an berrikusia, da III. IEP honen beste erreferentzia. Heren zazpi ardatzetako bostetan ingurumen-dimentsioa gailentzen da: klima-aldaketa eta energia garbia; garraio jasangarria; ekoizpen eta kontsumo arduratsua; baliabide naturalen kontserbazioa eta kudeaketa eta osasun publikoa.

III. IEPrako beste funtsezko Europako erreferentzia Ingurumen Alorreko Erkidegoaren Seigarren Ekintza Programa da, 2012ra arte indarrean dagoena. Lau ekintza alor nagusik biltzen dute Programaren muina: klima-aldaketak, biodibertsitateak, ingurumen eta osasunak eta baliabide eta hondakinen kudeaketa jasangarriak. Azken hamarkadan alor horietan guztietan izandako aurrerakadak gorabehera, hurrengo hamarkadan ere Europako ingurumen-agendan jarraituko dute gai horiek, ziur aski. Halaber, kontuan hartu dira 2010 osteko Biodibertsitateari buruzko Kontseiluaren ondorioak, European biodibertsitate galera gerarazteko “Cibeles” lehentasunak (2010) eta Osasun alorreko Estrategia 2007.

Oraintsu argitaratutako ingurumen-arau europar berriak aztertu dira, jada adierazi den 2008ko klima-aldaketari eta energiari buruzko arau-sorta, 2008ko Hondakinen Esparru Direktiba berria, 2010eko Eraikinetako Energia-errendimenduari buruzko Direktiba eta Lurzorua Babesteko esparrua ezartzeko direktiba-proposamena.


Espainiari dagokionez, oinarrizko erreferentziak ondokoak dira nagusiki: Garapen Jasangarriko Espainiako Estrategia (Ministroen Kontseiluak 2007an onartu zuena), Mugikortasun Jasangarriko Espainiako Estrategia (Ministroen Kontseiluak 2009an onartu zuena) eta Hondakinen eta Kutsatutako Lurzoruen Aurreproiektua.

Erreferentzia herrialde eta eskualdeen dokumentu estrategikoen artean ondokoak sartu dira: Suediako Ingurumen Ikuspuntu Berriak (2009, ingurumen-helburuen sistema eta horiek Suedian jarraitzeko prozedura azaltzen dutenak); Garapen Jasangarria Erresuma Batuko Gobernuaren Helburuetan (2010, ingurumenaren aldagaia Erresuma Batuko ekintza politikoan sartzean sakontzen duen dokumentua); eta argitaratu berri den Kataluniako Garapen Jasangarriko Estrategia (2010, epe luzearako estrategia, 2026rako, 16 ildo estrategiko jasotzen dituen eta 101 helburu estrategiko ezartzen dituen, horietatik 49 kuantifikatuak).

1.5.2 Joeren azterketa.

Uneko egoeraren ezaugarria den krisi ekonomiko eta finantzarioak hainbat adar eta ondorio dakarkie bizitzako ikuspegi guztiei, eta jakina, baita ingurumenekoei ere. Jarduera ekonomikoaren mantsotze nabarmenak eta kontsumoaren jaitsierak jarduera horietatik eratorritako ingurumen-presio nagusiak esanguratsuki leundu dituzte.

Honela definitu ditu Europako Batzordeak krisiaren ondorengo susperraldi jokaleku posibleak:



Iturria: Europa 2020 (Europako Batzordea, 2010)

Krisiaren ondorengo jokalekuek ekonomiaren eta kontsumoaren susperraldia aurreikusten dute datozen urteetarako. Ingurumen-politikari erronka dakarkio: hazkunde ekonomikoarekin lotutako ingurumen-presio ugariatatik desakoplatzen jarraitzea, hain zuzen. Beraz, III. IEP honentzako erronka garrantzitsua da jarduera ekonomikoaren eta kontsumoaren gorakadak ingurumenari eragingo dioten presioak aurreikusi, leundu eta desakoplatzeko dituen ingurumen-politika bat diseinatzea.

Jarraian zerrendatu dira ingurumen-arlo nagusietan aurreikusi diren joera espezifikoetako batzuk:

Klima-aldaketa

Globalki, energia eskariaren igoeraren aurreikuspenak, erregai fosilak gero eta gehiago erabiliko direlako barne, epe luzera berotegi efektuko gasen emisioak handitu egingo direla aurreikusten dute (Energiaren Nazioarteko Agentzia, Energy Outlook 2010).

Cancungo Akordioa, alderdi batzuetan aurrerapen nabarmenak ekarri zituen arren, ez zituen 2012an amaituko den Kiotoko Protokoloa ordezkatzeko duen emisioak murrizteko araubide lotesle baterako oinarriak ezarri. Helburu hori Hegoafrikako Durbango goi bileran, 2011n, lortuko denaren aurreikuspenak ez dira oso altuak oraingoz. Dena den, Europako Batzordeak emisioak datozen urteetan nabarmen murrizteko asmo sendoa du. Pauso handia eman du epe luzera emisioak arintzeko estrategian Europako Batzordeak 2011ko martxoan Road Map aurkeztuz; honen bidez 2030, 2040 eta 2050. urteetan mugarriak dituen arindura ibilbide eraginkor bat aurkezten da.

Eragin ugari dagoeneko gertatzen ari direla erakutsi dute ebidentzia zientifikoek. Planetaren geografia fisikoa aldatzen hasi da eta sistema ekologikoek eta biodibertsitateak klima-aldaketatik eratorritako eraginen seinale argiak erakusten dituzte (IPCC, 2007).

Ezinbestekoa da egokienak diren egokitze neurrien ezagutzan sakontzea, eskualde mailan etorkizuneko eraginei aurre egiteko. Horretarako, klima-aldaketak sistema naturaletan ez ezik sistema sozioekonomikoetan ere izango dituen eta espero diren eraginei aurrea hartzeko neurri moduan, beharrezkoa da planifikazio-prozesuetan klima-aldagai moduan gehitzea.



Biodibertsitatea eta
artifizializazioa

Ekosistemen zerbitzuaren kontzeptua sartzean, Nazio Batuek egindako Ekosistemen Milurtekoaren Ebaluazioak biodibertsitatearen galerari buruzko eztabaida maila altuago batera mugitu zuen. Biodibertsitatearen galerak eragin zuzena du ekosistemek pertsoneri eskaintzen dizkieten zerbitzuen kalitatean eta, ondorioz, pobretu egiten du horien bizi kalitatea. Froga askok erakusten dute maila globalean ekosistemen zerbitzuak presio handi baten mendean daudela, baliabide naturalak gehiegi esplotatzen direlako, habitatak galdu eta degradatu egiten direlako eta klima-aldaketaren eraginarengatik (Europako Ingurumen Agentzia, Laugarren Txostena, 2010).

Europar, datozen hamarkadetan eboluzio demografiko egonkor bat espero da, baliabide globalen geroz eta eskaera handiagoarekin batera, esaterako elikagaiak, zuntzak, energia eta ura. Halaber, lurzorua pixkanaka artifizializatzen joango da eta nekazaritza eta arrantza areagotu egingo dira. Presio horien Europako eta munduko biodibertsitatean izango dituzten eraginak oso garrantzitsuak izango direla aurreikusten da.

Azken hamarkadan, Europako Batasunaren politikaren helburu nagusia, biodibertsitateari dagokionez, horren galera 2010. urterako geraraztea izan da. Nahiz eta aurrerapenak egin diren, helburua ez da lortu. Ahaleginik nabarmenenak ondoko alorretan egin dira: habitaten kontserbazioa, Natura Sarea 2000 sortuz eta finkatuz; itsas ingurumenaren babesa; espezie inbaditzaileen kontrola; eta klima-aldaketara egokitzea, biodibertsitatea eta ekosistemen zerbitzuei dagokienez.

Europako Kontseiluak, Estatu buruek eta Batasuneko gobernu buruek osatua, 2010eko martxoan epe luzerako ikuspegi bat eta 2020rako helburu nagusi bat onartu dute: *“Europako Batasunean biodibertsitatearen galera eta ekosistemen zerbitzuen degradazioa 2020. urterako geraraztea eta horiek ahal den neurrian zaharberritzea; aldi berean, Europako Batasuna biodibertsitate globalaren hondatzeari dagokionez bere ekarpena murriztuz joango da”*.

Hondakinak,
material kontsumoa
eta beste baliabide
naturalen
kontsumoa

Baliabideen erabilera eta hondakinen sorkuntza handituz joan dira azken hamarkadan Europan. Batasunaren barruan baliabide naturalen erauzketa egonkor mantendu den bezala, kasu batzuetan apur bat murriztu da gainera, produktu naturalen, lehengaien eta energiaren inportazioari dagokionez dagoen mendekotasunak gora egin du. Horrela, ingurumenaren eta baliabide naturalen gaineko presioa geografikoki EBaren mugetatik kanpo hedatu da, baina ez da globalki murriztu.

Hondakinen sorkuntzari eta kudeaketari dagokionez, joera hondakin fluxuen hazkuntza da, eta aldi berean horien kudeaketa

hobetu egin da. Europak 40 urte daramatza hondakinei buruzko ingurumen-politikak garatzen. Horien sorkuntza murriztea helburu garrantzitsu bat izan da eta izaten jarraitzen du, baina lortutako emaitzak ez dira nahikoa izan hondakinen sorkuntzak hazkuntza ekonomikoarekin izan duen korrelazio positiboa kontuan hartuz.

Fluxu horien kudeaketaren esparruan izan dira aurrerapenak nabarietak eta hor eskaintzen ditu etorkizuneranzko joerak ingurumen-eragina murrizteko aukerak. Azken bi hamarkadetan energiaren berrerabilera, birziklapen eta balorizazioan egindako aurrerapenak funtsezkoak izan dira, baina Europako Ingurumen Agentziak adierazten du oraindik Europako Batasunean sortzen diren mota guztietako 6.000 milioi tona hondakinen erdia lurzoruan egindako isuriak direla –kopuru horren zati handi bat nekazaritza eta abeltzaintza hondakinak dira-.

Azken urteetan izandako hazkunde ekonomikoaren mantsotzeak zertxobait leun lezake hautemandako goranzko joera; epe luzerako, ordea, hondakinen sorkuntza handitu egingo dela aurreikusten da. Hondakinei buruzko 2008/98/EE Zuzentarau berriak, kudeaketako hierarkia ezagunari jarraiki, prebentzioaren garrantzia azpimarratzen du.

Airearen kalitateari dagokionez, azken urteotan antzemandako joera orokorra positiboa izan da sulfuro dioxidoa, SO₂, karbono monoxidoa, CO, eta nitrogeno oxidoa, NO_x, bezalako kutsatzaileetan. Ingurumenean berun kopuruak ere nabarmen egin du behera, gasolinetatik kentzeko araudiari esker. Osasunaren gaineko kezka PM 10 eta 2.5 partikuletarrantz eta ozonorantz, O₃ joan dira.

Inguru garbi eta osasungarria

Hiri-inguruneei, bizi-kalitateari eta ingurumenari dagokienez, Europa eta nazioarte mailan nagusi den joera da ulertzen dela korrelazio positibo sendo bat dagoela pertsonen jasotako bizi kalitatearen eta hiriko ingurumenaren kalitatearen artean.

Europako Batasuneko 500 milioi pertsonetatik % 80 inguru hiri guneetan bizi dira. Jasotzen duten bizi kalitatea zuzenean lotuta dago arnasten duten airearen kalitatearekin, jasaten duten zaratarekin, inguruan berdeguneak edukitzearekin ala ez, atsedean hartzeko edo seme-alabekin jolasteko, oinezkoentzako espazioak edukitzearekin, zirkulazio pilaketa arazoak edukitzearekin ala ez, garraio bide publiko bikainak edukitzearekin ala ez. Jasotako bizi-kalitatea, alderdi sozialen, ekonomikoen eta etxebizitza sarbideen alderdien arteko erlazioen sare konplexu baten arabera da, zehazki ingurumenarekin lotutakoekin batera. Hiri ingurumenaren kalitate integrala da, zalantzarik gabe, datorren hamarkadan Europako politika publikoak gidatuko dituzten indar lerrotako bat.

2. III. IEP-REN ELEMENTUAK

2.1 III. IEP-REN IKUSPEGIA

Ingurumenaren zeharkako izaerak energia, garraioak, etxebizitza, lurralde antolaketa eta urak bezalako alorretan eskumena duten beste Administrazioetara gerturatzea eskatzen du, ingurumen-politika diseinatzeke. Gerturatze hori hainbat modutan egin daiteke.

IEP hau ondoko premisatik abiatzen da: funtsezkoa da Administrazio hauen sektoreko plangintzetan parte hartzea, horietan ingurumenaren ikuspuntua sartzen saiatuz, behin sektore plangintzan finkatuta daudenean, sektoreko Administrazio horiekin lan egitea horiek lortzeko, eta horien eboluzioaren jarraipen bat egitea. Azken batean, **sail eta erakundeen arteko lankidetzari garrantzi handia ematen dion ikuspegi** bat da, beste sektoreko politiken diseinu fasetik era aktiboan parte hartuz.

Ikuspegi honetan funtsezkoa da **Plan eta Programen Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazioa (IEBE)**, jarrian aipatzen diren koordinazio tresnen erabileraz gain. Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazioak, besteak beste, planen osotasuna eta elkarrekintza eta beste plan batzuekin aztertuta (zehazki, III. IEP honekin); plangintza alternatiboak kontuan hartzea; alternatiben ingurumen-ebaluazioa; aukeratutakoa justifikatzea; neurri prebentibo eta zuzentzaileak ezartzea eta adierazledun jarraipen plan bat diseinatzea.

Tresna hau jada aplikatzen ari da 2001-2010 Euskadiko Energia Estrategian; Lurralde Antolaketako Arteztarauetan; 2015 Euskadiko Barne Arroen Plan Hidrologikoan; EAeko Energia Eolikoaren Lurralde Arloko II. Planean eta Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Arloko Planean. Nahiz eta duen izaerarengatik ez den derrigorrezkoa, III. IEPk berak jasan du IEBEaren prozedura.

Ingurumenaren ikuspuntua zeharo sartzea plan hauetan eta eratzen ari diren beste batzuetan, esaterako, Klima-aldaketaren Euskal Plana 2020, Klima-aldaketaren Euskal Legea eta Ingurumenaren Lege Orokor berria, funtsezkoa da III. IEP honen helburuak lortzen laguntzeko.

Zentzu horretan eratzen ari diren sektoreko plangintza kopuru handia nabarmendu behar da (energia-plangintza, klima-aldaketarena, hidrologikoa, etab.), III. IEPn eragina dutenak, beraz, ingurumen-helburu jakin batzuk ezarri dira (klima-aldaketari eta energiari, uraren kalitateari eta abarri dagokienez) modu inplizituan, zuzenean plangintza horiek aipatuz.

Hirugarren edizio honek funtsezkotzat jotzen du **sektoreko politikak izatea aktiboki ingurumenaren aldagaia sartzen dutenak**, eta horretaz arduratuko da bereziki Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Zentzu horretan, 5. Helburu Estrategikoak, besteak beste, EAeko herri administrazioaren sektoreko plangintza esanguratsuenetan ingurumenaren aldagaia sartzea planteatzen du. Gainera, Helburu Estrategiko honen esparruan proposatzen da Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin, Foru Aldundiekin eta tokiko erakundeekin aktiboki lan egitea, erakundeen arteko koordinazioa indartuz dauden organoen bidez, esaterako, Ingurumenerako Aholku Batzordea, Euskadiko Ingurumen Batzordea, Klima-aldaketaren Euskal Bulegoa, Hondakinak Koordinatzeko Organoa, Euskadiko Lurralde Antolamendurako Batzordea, Naturzaintza Euskal Herriko Natura Babesteko Aholku Kontseilua eta Udalsarea 21, Jasangarritasunerako Euskal Udalerrien Sarea, etab.

Bestalde, 6. Helburu Estrategikoaren asmoa da EAEko eragile ekonomiko, teknologiko eta sozialak gure lurraldearen ingurumen-arazoan konponketan erantzukizukide egitea.

II. IEP ezartzetik eta EAEko egungo ingurumenaren egoeratik eratorritako ingurumen-emaizten azterketatik ondorio batzuk atera dira, ingurumen-esparruaren plangintzaren ziklo berri honetarako hausnarketa gisa balio dutenak.

II. IEPren formulazioak nazioarteko erreferentziaren eta joeren esparru estrategikoaren azterketa sartu zuen. Horrela IEPren esparru estrategikoak, gaian erreferente nagusiekin koherentzia izan du denboran zehar, programazio ziklo berri honetan jorratzen jarraituko den bideari jarraiki.

-Neurri handi batean, IEPren prestaketak izan duen arrakasta hainbat formatutan, hainbat zedarrarekin eta hainbat eragilerekin planteatu den parte-hartze prozesuari zor zaio. Aurreko IEPen esperientziari esker kontaktuen eta formatuen gestioa optimizatu eta aprobetxatu ahal izan da, eta prozesu dinamiko baterako abiapuntu moduan erabili dira, parte-hartzea sustatzeko prozesua sortu eta formatuak ugaritu direlarik.

II. IEPk konpromiso zehatz, neurgarri batzuk, ingurumen-kalitatea hobetzera bideratuak, zehaztu zituen. Ziklo berri honek hobekuntza konpromisoak neurgarriak izateko irizpidea mantentzen du, konpromiso bakoitza lortzeko arduradunak identifikatuz, nahiz eta III. IEP honen idazketan konpromiso horiek **Helburu Operatiboak** diren.

2007-2010 II. IEPra aginte-koadro integrala aurreikusi zen, horren betetze-mailaren adierazle eta erantzuleak biltzen zituena; koadro hori erreferentzia gisa erabili da III. Ingurumen Esparru Programa 2011-2014 eratzeko.

Konpromisoak ezartzearen eraginkortasuna eta eragina oso murrizta izan da Ingurumen Sailaren eskumenetatik haratagoko eremuetan aurreko IEPetan. Horregatik, esparru plangintzaren ziklo berrian ingurumen-arloetan zehaztu dira batez ere konpromisoak (orain helburu operatiboak), kudeaketa eraginkorragoaren mesedetan.

Sailak ingurumen-garrantzia duten beste sektoreko politiketan parte hartzea, plangintzan eta horren gauzatzearen jarraipenean esku hartuz indartzen da, dauden koordinazio organoen bitartez.

II. IEPk bere aginte-koadroan 11 helburu estrategiko, 44 konpromiso eta 6 ezinbesteko baldintza definitu zituen, maila berean. Horien jarraipenak erakusten du elementu kopuru handia dela eta gomendagarria dela batzuei lehentasuna ematea eta hierarkia bat ezartzea, eraginkorragoak izateko eta ekintza garrantzitsuenetara bideratzeko. Horregatik, III. IEPren ikuspegia sinplifikatu egin da, Eusko Jaurlaritzaren plangintzaren ikuspegiaren eskakizunetara egokituz; honek eratzen diren sektoreko plangintza berri guztietarako nomenklatura komun bat ezartzen du, horien exekuzioaren jarraipena hobetzeko eta ezarritako konpromiso politikoaren gainean gardentasuna areagotzeko.

Horrela, III. IEPk **2020 ikuspegi** berri bat planteatzen du, **6 helburu estrategiko** argi eta zehatzekin, **17 helburu operatiborekin** eta guztira **57 jardute-lerroekin**, aipatu helburuei atxikitako neurri zehatzekin.

II. IEPn zehaztutako konpromiso batzuek epe labur-ertainera lortzea ezinezkoa zela ikusi zen. Bestalde, ez da posible izan adierazle batzuen aurrerapena ezagutzeko euskarriaren informazioa lortzea eta horrek eragotzi egin du horien eboluzioaren jarraipen zehatza



egitea. Ahalegina egin da III. IEP formulatzean irizpide asmo handien eta errealismoaren arteko oreka mantentzeko, eta halako informazio-mota jakin batzuk eskuratzeko gaitasuna eta aukerei buruzko gogoeta ere egin da.

II. IEPn parte-hartze eta egiaztatze prozesua dokumentua bera eratzeko fasera bideratu zen. III. IEP honen asmoa **gauzatze eta jarraipen fasean ere eragile desberdinen inplikazioa** mantentzea da, dauden bideez eta komunikazio eta parte-hartze espazio berrien aukerez baliatuz. Zentzu horretan, emaitzen berri ematean duen eragina handitu nahi du III. IEPk urteroko Ingurumen Profiletik abiatuta. Horretarako, aurkezte-epeak aldatuko ditu informazioak deskribatzen duen denbora-aldia bat etor dadin urte-zikloarekin; halaber bere hedadura zabalduko du eta kalitatea eta interesa doitzea ahalbidetzen duten estandarretara egokituko du bere egitura.


Aipatu behar da aurretiko lana egin dela helburu operatiboak eta jardute lerroak zehaztu beharreko gaiak lehenesteko eta hierarkizatzeko, horrela, **ILPNASaren beraren kudeaketa ahalmen handiagoa duten ikuspegi garrantzitsuenak azpimarratuta**, kudeaketaren eta baliabide erabileraren eraginkortasuna handitzeko. Ildo horretatik abiatuta, adierazgarriak sinpletzen eta hautatzen ahalegin berezia egin du III. IEPk, benetan esanguratsuak izan daitezkeen helburuen jarraipena egiteko eta, ahal den neurrian, baldintza moduan jarrita horiek eguneratzeko datuak iturri ofizialetatik (estatistika organoetatik) hartuak izatea. Horrela lortu nahi da, IEPk beste edozein erakunderen Aginte Koadroak bezalako adierazgarri-andana izatea eskura eta, hortaz, neurrien eraginkortasunaren benetako jarraipena egitea erraztea eta haiek aise zuzendu ahal izatea.

Azkenik, dokumentuaren eratze prozesuan zehar abian jarri zen parte-hartze eta egiaztatze prozesu bat, eta horien helburua funtsean izan zen jardute lerroak identifikatzea, aukeratzea eta lehenestea. II. Eranskinean prozesu honen ezaugarriak eta funtsezko emaitzak laburbiltzen dira.

2.2 EGITURA

Planifikazio-elementuek osatzen dute III. IEP, zehaztasun txikitik handira antolatuta, eskema honen arabera:

III. IEPren kontzeptu eskema



Ikuspegiak eta **Helburu Estrategikoak** epe luzerako ingurumen-politika gidatzen duten elementu estrategikoenak eta kontzeptualenak dira. **Helburu Operatiboak** eta **Jardute Lerroak**, berriz, elementu kontzeptualak gauzatzeko eta zehazteko formulatu dira. Gainera, Helburu Operatibo bakoitzak atxikita darama, gutxienez, bere betetze-maila ebaluatzea ahalbidetzen duen adierazle bat.

Aurreko puntuan adierazten zen bezala, III. IEPren esparru estrategikoa ikuspegiak, helburu estrategikoenak eta helburu operatiboenak osatzen dute, eta horiei aurreko kapituluan jasotako printzipio gidariak gehitu behar zaizkie.

2.3 IKUSPEGIAK ETA HELBURU ESTRATEGIKOAK

Ingurumenaren aldagaia sektoreko politketan sartuz eta EAEko eragile sozio-ekonomiko guztiak ingurumen-arazoen erantzukizukide eginez, **euskal ingurumen-politika gidatzen duen ikuspegi estrategikoa ondokoak da:**

“Herritarren gaur egungo eta etorkizuneko bizi kalitatea zaintzea, klima-aldaketari aurre eginez, biodibertsitatea eta sistema ekologikoen funtzionaltasuna zainduz, sortutako hondakinak behar bezala kudeatuz, ingurune garbi eta osasungarria izatea bermatuz, eta natura baliabideak arduraz kontsumitzea sustatuz”.

Ikuspegi hau sei helburu estrategikotan zehazten da. Lehenengo lauek III. IEPk zuzenean eragiten dituen **ingurumen-esparruak** aipatzen dituzte (klima-aldaketa, biodibertsitatea, airearen eta uraren kalitatea, etab.). Bestalde, 5 eta 6. helburuak, ingurumen-arazoen



zeharkakotasuna kontuan hartuz, batez ere **beste eragile publiko eta sozial batzuen inplikazioa** lortzera bideratzen dira, III. IEPk hedatzea lortu nahi duen ingurumen-politikaren eraginkortasuna hobetzeko.

III. IEPren helburu estrategikoak

1	EAEen berotegi efektuko gasen emisioak gutxitzea eta klima-aldaketaren eraginak murriztea.
2	Dibertsitate biologikoaren galera etetea; ekosistemak zaharberritzea eta lurzorua artifizializazioa mugatzea.
3	Baliabideen erabilera eraginkorra eta kontsumo arduratsua sustatzea
4	Inguru garbi eta osasungarria lortzea.
5	Sailarteko eta erakundearteko koordinazioa eta lankidetzak indartzea, ingurumenaren aldagaia arau proiektuetan eta politika publikoetan sartzea sustatuz.
6	Interesgarriak diren eragile ekonomiko, zientifiko-teknologiko eta sozialak erantzukizukide egitea, merkatua ingurumenaren alde erabiliz eta informazioa eta prestakuntza hobetuz.

2.4 III. IEP-REN KUDEAKETA

Helburu operatibo eta jardute-lerro bakoitzerako izendatutako arduradunen bitartez gidatzen du Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Planifikazio, Nekazaritza eta Arrantza Sailak (ILPNAS) 2011-2014 III. IEPren ezartze-prozesua.

Ihobe Ingurumen Kudeaketarako Sozietate Publikoaren bitartez gauzatzen ditu Eusko Jaurlaritzak Ingurumen Esparru Programaren ezartze prozesuaren aurrerapenaren jarraipena egiteko Idazkaritza Teknikoaren funtzioak.

Horrez gain, ILPNAS bi koordinazio-erakunde hauetaz baliatuko da, besteak beste, III. IEPren kudeaketa egokia bermatzeko, bereziki ingurumen-konsiderazioak sektoreko politiketan hobeto txertatzeko eta proposatutako jardute-lerroak behar bezala sustatzeko:

- **AEko Ingurumen Batzordea.** Ingurumen-alorrean Euskadiko Administrazioen harreman, parte-hartze eta koordinaziorako organo aholku emailea. Otsailaren 27ko 3/1998 Legeak sortua eta apirilaren 11ko 82/2002 Dekretuak aldatutako apirilaren 11ko 69/2000 Dekretuak arautua. Organo honen esparruan urtero III. IEPren jarraipen saio bat gauzatuko da.
- **EAEko Ingurumenerako Aholku Batzordea.** Ingurumen-politikaren eratze, kontsulta eta jarraipen prozesuetan interes ekonomiko, sozialak ordezkatzeko dituzten sektoreen eta unibertsitatearen parte-hartzea erraztea helburutzat duen organo aholku-emailea, otsailaren 27ko 3/1998 Legeak sortua eta urriaren 10eko 199/2000 Dekretuan arautua. Aurreko organoan bezala, urtero III. IEPren jarraipenera bideratutako saio bat egingo da.
- **Klima-aldaketaren Euskal Bulegoa.** Apirilaren 7ko 77/2009 Dekretuak sortua eta arautua. Klima-aldaketaren aurkako borrokan jarduten duten Eusko Jaurlaritzako Sailen arteko politika-koordinazioko organo nagusia. Organo honen barruan klima-aldaketaren gaineko helburuen aldizkako jarraipena gauzatuko da.
- **Hiri Hondakinak Koordinatzeko Organoa:** Eusko Jaurlaritzaren eta hiru Foru Aldundien arteko koordinazio organoa, Eusko Legebiltzarreko bilkuran, 2006ko otsailaren 10ean ospatutako saioan ezarritakoan oinarrituta. Bertan legez besteko proposamen bat onartu zen. Horretan "Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Foru Aldundiekin koordinazioa ezartzeko eta Euskadiko Ingurumena Babesteko 3/1998 Legean xedatutakoa betetzeko. Organo honetan EAerako hiri hondakin solidoen kudeaketarako plangintza esparruaren irizpideak eratzen dira, eta inplikaturako eragileek informazioa eskuratzea eta horien parte-hartzea bermatzen da.
- **Naturzaintza, Euskal Herriko Natura Babesteko Aholku Kontseilua.** Ekainaren 30eko 16/1994 Legeak sortua. Erakundeen ordezkariak eta ingurune naturalaren jakintza, ikerkuntza, babesa eta kudeaketarekin zerikusia duten diziplinetako adituek osatutako organo aholku emailea.
- **Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendu Batzordea.** Maiatzaren 31ko 4/1990 Legean aurreikusia eta irailaren 9ko 157/2008 Dekretuak arautua. Lurraldearen eta itsasertaren antolaketa eta hirigintza alorretako organo aholku emailea. Organo

honen esparruan lurzoruarekin eta lurraldearekin lotutako helburuen jarraipena egingo da (hainbat tresnaren bidez, besteak beste, Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazioa eta lurralde eta hirigintza plangintzen prozeduren esparruan emandako biodibertsitate txostenak).

- **Udalsarea 21, Jasangarritasunerako Euskal Udalerrien Sarea.** EAeko udalerrietako Tokiko Agenda 21ak dinamizatu eta Tokiko Ekintzako Planen gauzatzea bultzatzen duen koordinazio eta lankidetzaren foroa.
- **EcoEuskadi 2020 Sail arteko Batzordea.** Organo honen egiteko nagusia Eusko Jaurlaritzako Sailen artean zeharkako izaera duten jarduerak koordinatzea eta sustatzea da, eta horien jarraipena egitea, EcoEuskadi 2020ren helburu eta lerro estrategikoak betetzea errazteko. Gainera, EcoEuskadi Garapen Jasangarriaren Estrategia eratzea dagokio, horren helburuak eta jardute lerro estrategikoak eta hori lortzeko neurriak ezarri.
- **EcoEuskadi 2020 erakunde arteko Batzordea.** Organo honen egiteko nagusia Euskadiko herri administrazioen artean Garapen Jasangarriaren strategiarekin lotutako zeharkako izaera duten jarduerak koordinatzea eta sustatzea da.

III. IEP honen erronka garrantzitsuetako bat, beste sail, administrazio eta eragileekiko koordinazioa da, eta zentzu horretan helburu estrategiko gisa jasotzen da. Halaber, aurretik dauden koordinazio organo kopuru handia areagotzeko premisatik abiatzen da. Erronka jada sortutako koordinazio organoak balioan jartzea da, benetan sortzean izan zuten zeregina gauzatu dezaten.

Lehen adierazi den bezala, ILPNASak datozen lau urteotan ahaleginak egingo ditu III. Ingurumen Esparru Programan zehaztutako helburu estrategikoak eta operatiboak lortzeko. Aipatu organoen bidez urtero aztertuko da Helburu Estrategikoetatik eta Operatiboetatik irteten diren sektoreko politiken ekarpena.

3. HELBURU OPERATIBOAK ETA JARDUTE-LERROAK, HELBURU ESTRATEGIKOAK HEDATZEKO

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak (ILPNAS) 2011-2014 aldian bultza litzakeen **jardute lerro** lehenetsiak aurkezten dira kapitulu honetan. Jardute lerroek III. IEPren ikuspegiak eta helburu estrategikoak erakusten dituzte eta aldi berean helburu operatiboekin lerroatuko dira. Ingurumen-esparru zehatz baten gainean zuzenean eragiten duten jardute-lerroak, zeintzuen gidaritza nagusiki, nahiz eta ez soil-soilik, ILPNASarena den, 1, 2, 3 eta 4. Helburu Estrategikoen epigrafean agertzen dira. Izan ere, azaldutako jardute-lerroak modu estuan lotuta daude ILPNAS beraren Zuzendaritzen eskumenekin.

Ingurumen-arazoei aurre egiteko konponbideak eratzekoan lankidetzaren eta erantzukidetasuna sustatzeko beste erakunde publiko edo pribatu batzuetan eragin nahi duten jardute-lerroak 5 eta 6. Helburu Estrategikoen epigrafean agertzen dira. Helburu horien barruan ILPNASak gidatu beharreko beste jardura batzuk jasotzen dira; baina jardura horien planteamendua, garapena eta arrakasta, beste sail arteko edo erakunde arteko egitura administratibo batzuen mendean ere badago, edo horiei eragiten die edo lotu egiten ditu oso modu esanguratsuan. ILPNASak jardute lerro hauei dagokienez bere gain hartzen duen **konpromiso orokorra, aktiboki lan egitea da, lan-ildo horiek organo bakoitzaren (dela eskuduna, dela lankide edo erlazionatua) agenda eta tresnetan txertatzeko**, baita era eraginkorren gauzatzearren laguntzea ere.

Horrela, ILPNASak dagokion sektoreko plangintzan esku hartuko du ingurumen-helburuak lortzeko (energia, garraioa, industria, lurralde antolaketa, nekazaritza, etab.). Ikuspegi horrekin, Helburu Estrategiko hauetan sartzen diren **jardute-lerroak** ILPNASak **egiaztatze eta parte-hartze** prozesuaren bidez bultzatutako barne-gogoeta bateratu baten ondorioak dira (ikus 2. eranskina). Gogoetaren helburua izan da identifikatzea zein ziren ILPNASetik kanpo garatu beharreko jardute-lerro lehenetsiak, hartara III. IEPren ikuspegiak eta helburuak erdiesterantz aurrera egiteko.

Jarraian zerrendatu diren jardute-lerro guztiak laguntzen dute ikuspegiak, helburu estrategikoak eta helburu operatiboak lortzen. Hala ere, horietako batzuk sei helburu estrategikoetako baten alderdi jakin edo esparru zehatz batzuetan ardatzen dira. Jardute-esparru nagusi horietako bakoitzerako asmo zehatzak, objektiboak eta, ahal den neurrian, kuantitatiboak dituzten helburu operatiboak zehazten dira.

HELBURU ESTRATEGIKOAK		HELBURU OPERATIBOAK
INGURUMENAREN EGOERA	1. HE: EAE-N BEROTEGI EFETUKO GASEN EMISIOAK ARINTZEA ETA KLIMA-ALDAKETAREN ONDORIOAK MURRIZTEA	1. Klima-aldaketaren plangintzan ezarritako emisioak mugatzeko helburua betetzea.
		2. EAEko jarduera/sektore gakoek KAren kalteekiko duten zaurgarritasuna aztertzea sustatzea.
	2. HE: DIBERTSITATE BIOLOGIKOAREN GALERA GERARAZTEA, EKOSISTEMAK ZAHARBERRITZEA ETA LURZORUAREN ARTIFIZIALIZAZIOA MUGATZEA	3. Natura 2000 sarean dauden EAEko habitat eta espazioen kudeaketa aktiboko maila altua erdiestea.
		4. EAEn galzorian zein egoera kritikoan dauden espezieen populazioen bilakaera joerak hobetzea.
		5. Habitat naturalek, erdi naturalek zein naturalizatuek okupatzen duten lurraldearen hedadura handitzea eta haien kontserbazio-egoera hobetzea.
	3. HE: BALIABIDEEN ERABILERA ERAGINKORRA ETA KONTSUMO ARDURATSUA SUSTATZEA	6. Euskal ekonomiaren produktibitate material totala % 4 hobetzea.
		7. Hondakin industrial arriskutsu eta ez-arriskutsuen balorizazio materialeko tasa % 5 handitzea.
		8. Lurraldeko birziklatzean eta hiri espazioen, espazio industrialen eta azpiegituren berrikuntzan laguntzea, lurzoru berrien okupazioaren alternatiba gisa.
	4. HE: INGURU GARBI ETA OSASUNGARRIA LORTZEA	9. PM-10, PM 2.5, Ozono eta NOx partikulen indizea ona eta onargarria kategorietakoa izan dadin lortzea, % 95etik gorakoa.
		10. Industria jatorriko kutsadura murrizten laguntzea.
11. Kutsatuta egon litezkeen jabetza publikoko lurzoruetan ikertutako eta berreskuratutako azalera % 5 gehitzea.		
ERAGILEAK MOBILIZATZEA	5. HE: SAILARTEKO ETA ERAKUNDEARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA INDARTZEA, INGURUMENAREN ALDAGAIA ARAU PROIEKTUETAN ETA POLITIKA PUBLIKOETAN SARTZEA SUSTATUZ.	12. EAEko Administrazioen politika eta jarduera esanguratsuak egitean parte hartzea, gutxienez 8tan
		13. Erkidegoko ingurumen-legedia hobetzea, gutxienez 6 eremu esanguratsutan segurtasun juridikoa bermatzeko.
		14. Erosketa eta kontratazio publiko berdearen irizpideak gehitzea Eusko Jaurlaritzaren Sailetan eta atxikitako Erakunde Publikoetan, erosketa publiko "esanguratsuen" % 100ean, gaur egun ingurumen-irizpide jakinik baldin badute
	6. HE: INTERESGARRIAK DIREN ERAGILE EKONOMIKO, ZIENTIFIKO-TEKNOLOGIKO ETA SOZIALAK ERANTZUKIZUKIDE EGITEA, MERKATUA INGURUMENAREN ALDE ERABILIZ ETA INFORMAZIOA ETA PRESTAKUNTZA HOBETUZ	15. 100 erakunde berritan EMAS ziurtagiriak areagotzea
		16. Gardentasuna sustatzea, ingurumen-informazioa eskuragarriago bihurtuz
		17. Ingurumen-kontzientzia sustatzea eta finkatzea Agenda 21 programen ezarpenaren eta herritarrei, eragile ekonomikoiei, zientifiko teknologikoei eta sozialei zuzendutako jardueren bidez.

3.1 1. HELBURU ESTRATEGIKOA. EAE-N BEROTEGI EFEKTUKO GASEN EMISIOAK GUTXITZEA ETA KLIMA-ALDAKETAREN ERAGINAK MURRIZTEA.

Klima-aldaketarekin lotutako jardueri dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak (ILPNAS) BEGen emisioen jarraipen-lanak egiten ditu, urtero EAEko emisioen inbentarioak eratuz; horrez gain, arintze eta egokitze alorrean plangintza eratzten eta koordinatzen du. Halaber, enpresekin eta tokiko entitateekin emisioak murrizteko ekimenak antolatzen ditu eta egokitzeko neurriak proposatzen ditu. Helburu honek argi erakusten du beharrezkoa dela administrazio guztien inplikazioa ingurumen-helburuak lortzeko, eta zentzu horretan energia, garraioa edo lurralde plangintza eta hirigintza bezalako alderdien kudeaketa funtsezkoa da hori lortzeko.

Klima-aldaketari Aurre Egiteko Euskal Plana 2008-2012 (KAAEP 2008-2012) gai honetan erreferentziatzeko plangintza gisa eratzten da, eta III. IEPk klima-aldaketaren plan horretan ezartzen den emisioak mugatzeko helburua hartzen du bere gain, hau da, 2012an BEGen emisioak + % 14 baino gehiagoan ez gainditzea 1990eko emisioei dagokienez.

Adierazi behar da, gainera, III. IEP hau eratzerakoan, plan berri baten izapidetza hasi dela (Klima-aldaketaren Euskal Plana 2012-2020), 2020. urtera begira, 2012tik haratagoko helburuak ezarriko dituen.

Ondorioz, Klima-aldaketaren Plan berria (2012-2020) beste estrategia batzuekin koordinatuko da, esaterako, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Euskadiko Energia Estrategia 2020, 3E 2020, Mugikortasun Jasangarrirako Gidaplana 2020³, eta Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzaren Gidaplana edo Eraikinak Birgaitu eta Hiri Berritzeko Plan Estrategikoa, Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailarenak.

Azaldu den bezala, klima-aldaketaren izaerak arintze eta egokitze konponbideak egituratzeko EAEko erakunde gehien inplikazioa behar da. Helburu horretarako, Eusko Jaurlaritzaren barruan koordinazio-organo nagusia Klima-aldaketaren Euskal Bulegoa da, non, aipatu sailez gain, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Herrizaingo Sailak ere parte hartzen duten, meteorologian duten eskumenarengatik, besteak beste. Erakunde arteko eta beste eragile sozialekiko lankidetzaren organo gisa, ez soilik klima-aldaketari dagokionez, baita ingurumen-alorreko beste edozein gairako ere, EAEko Ingurumen Batzordea eta Euskadiko Ingurumenerako Aholku Batzordea aipatu behar dira. Halaber, nabarmendu behar da Klima-aldaketaren Espainiako Bulegoarekiko lankidetzaren garrantzia; koordinazio hori Klima Aldaketaren Politiken Koordinazio Batzordearen bidez egiten da.

Foru Aldundiek helburu horretan beren ekarpena egiten dute, kontuan izanik baso-kudeaketa (basoen zeregina sustatuz karbono hustubide gisa) edo alor fiskalean (karbonoan horren intentsiboak ez diren jarduerak bultzatzen dituzten tresna fiskalak aplikatuz) edo garraio azpiegitura eta zerbitzuen kudeaketa dituzten eskumenak.

Bestalde, nabarmentzekoa da tokiko ekintzaren garrantzia helburu estrategiko honi dagokionez. Udalsarea 21-ek, Jasangarritasunerako Euskal Udalerrien Sareak, klima-aldaketaren inguruan ekimen desberdinak garatzen ditu, tokiko eragileen arazo

³ Estrategia honetan ingurumenaren integrazioa, jasan duen ingurumen eraginaren azterketaren bidez berrikusten da



espezifikoak arreta jarri. Egin diren ekintzen artean, klima-aldaketaren udal ordenantzaren eredu bat eratu da eta lan-talde espezifikoetara (Ekitalde) eraman dira, tokiko esparruan klima-aldakeari buruzko zenbait koaderno egin dituztenak. Bestalde, Alkateen Itunaren ekimena aipatu behar da, euskal udalerrien artean geroz eta hedatuagoa dagoena. Itun horren helburua da tokiko entitateak bultzatzea, EBak 2020. urterako ezarritako helburuak gainditzeko, beren berotegi efektuko gasen emisioak % 20 murrizteko helburua ezarri.

Administrazio guztien beharrezko inplikazioan aurrera egiteko ekintza gakoetako bat, azaldutako eremuan, berotegi efektuko gasak murrizteko helburu espezifikoak zehaztean datza (karbono aurrekontuak –“carbon budget”-) inplikaturako Herri Administrazio bakoitzarentzako. Zentzu horretan, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak Klima-aldaketaren Legearen Aurreproiektuan hasierako proposamen bat aurkeztu du, eta xehetasun proposamenak gidatzen jarraituko du legearen azken edukiari jarraiki.

Bi hauek dira helburu estrategiko hau erdiesteko lanean lehenetsi diren jardute-esparru gakoak. Batetik, berotegi efektuko gasen emisioak **arintzea** (1. Helburu Operatiboa, “Klima-aldaketaren plangintzan ezarritako emisioak mugatzeko helburua betetzea”); bestetik, klima-aldaketaren ondorioak **murriztea** (2. Helburu Operatiboa, “EAEko jarduera/sektore gakoek KAren kalteekiko duten zaurgarritasuna aztertzea sustatzea”).

1. HELBURU ESTRATEGIKOA EAE-N BEROTEGI EFEKTUKO GASEN EMISIOAK ARINTZEA ETA KLIMA-ALDAKETAREN ONDORIOAK MURRITZEA		
Kategoria	Definizioa	Arduraduna
HELBURU OPERATIBOA	1. Klima-aldaketaren plangintzan ezarritako emisioak mugatzeko helburua betetzea	Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza
JARDUTE-LERROAK	1. Eusko Jaurlaritzaren instalazioei lotutako BEGen emisioak murriztea	Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza
	2. Esparru publikoan hornikuntza eta kontratazio berdeko irizpideak jarraitzea sustatzea.	Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza
		Ihobe
	3. Teknologia garbien erabilera sustatzea emisioak murrizteko (teknologia garbien erakusketa proiektuak eta horien hedapena beste esparru batzuetara)	Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza
		Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza
	4. Eragile publiko eta pribatuek emisioak borondatez murriztea eragitea	Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza
	5. Hustubideen xurgatzeko ahalmena areagotzeko plan bat eratzea	Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza
	6. Herritarrak, enpresak eta bestelako eragileak emisioak murriztearen alorrean kontzientziatzea eta parte har dezaten sustatzea	Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza
HELBURU OPERATIBOA	2. EAEko jarduera/sektore gakoek KAren kalteekiko duten zaurgarritasuna aztertzea sustatzea	Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza
JARDUTE-LERROAK	7. Klima-aldaketak eskala lokalean eragiten dituen aldagai aldaketak politika sektorialetan (nekazaritza, zuhaizgintza, biodibertsitatea, hidrologia, lurralde antolaketa...) aintzat hartuak izan daitezen laguntzea	Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza
	8. I+G+b garapen lerroak sustatzea KAra egokituta, erabakiak hartzea eta emaitza zabaltzea zuzenduak	Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza
	9. EAEn klima-aldaketara egokitzeko konponbide eta neurriak garatzea sustatzea	Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza
	10. Klima-aldaketaren Euskal Legea ezartzea eta garatzea ⁴	Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza

3.2 DIBERTSITATE BIOLOGIKOAREN GALERA ETETEA; EKOSISTEMAK ZAHARBERRITZEA ETA LURZORUAREN ARTIFIZIALIZAZIOA MUGATZEA

⁴ Klima Aldaketaren Euskal Legea ere 1. Helburu Operatiboan sartzen da; izan ere, egokitzeaz gain, BEGen emisioak arintzera zuzendutako jarduerak jasotzen ditu.



Eusko Jaurlaritzak, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren bidez (ILPNAS), ingurumenaren, biodibertsitatearen eta ondare naturalaren alorrean araudia, planak eta estrategiak eratzea proposatzeko eta koordinatzeko eskumena du.

Helburu estrategiko honi dagokionez, Biodibertsitatearen eta Parte-hartzearen Zuzendaritzak Natura 2000 Sarean biltzen diren espazio naturalen kudeaketan garatutako jardura nabarmendu behar da; egun Batasunaren garrantziko 52 leku (BGL) eta Hegaziak Babesteko 6 Gune Berezik (HBGB) osatzen dute.

Foru Aldundiek ingurune naturalaren, nekazaritzaren, basoen, babestutako espazio naturalen kudeaketaren eta abarren esparruetan dituzten eskumenak kontuan hartuz, esparru honetan horiekin koordinatzea eta batera lan egitea funtsezkoa da. Koordinazio organo espezifiko gisa Naturzaintza nabarmentzen da, Euskal Herriko Natura Babesteko Aholku Kontseilua. Gainera, Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan sartutako espezieen kudeaketa planak Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren eta Foru Aldundien artean eratzen dira.

Lurzoru eta artifizializazio alorrean, ILPNASeko Lurralde Plangintza eta Uren Sailburuordetzak eskumenak ditu lurralde, itsasertz eta paisaiaren antolamenduaren alorreko araudia planifikatzeari eta eratzeari dagokionez. Sailburuordetza horren mendean dago Lurralde Antolaketako Zuzendaritza, eta hau arduratzen da lurraldea eta itsasertza antolatzeko tresnak eratzeaz, izapidetzeaz eta, kasua balitz, aldatzeaz eta berrikustez, besteak beste, Lurralde Plan Partzialak eta Lurralde Arloko Planak. Horrela, Lurralde Antolaketako Zuzendaritzatik Lurralde Antolaketako Artezpideen (LAA) eraketa koordinatzen da; hauek ingurumenari, baliabide naturalei, paisaiari, hiri-, industria- eta landa-espazioei, azpiegitura eta ekipamenduei eta ondare historiko eta kulturalari buruzko etorkizuneko oinarrizko jardute-ardatzak ezartzen dituzte.

Garraio azpiegitura linealen barruan, errepideen eraikuntza eta kudeaketa Foru Aldundiei dagozkie, baina esparru plangintza Eusko Jaurlaritzaren eskumena da, Garraio eta Herri Lanen Sailaren bidez. Sail hau da trenbide azpiegitura linealen gaineko eskumenen titularra Estatuak autonomia erkidegoari eman dizkion esparruetan.

Lurzoruaren artifizializazioa mugatzeko alorrean funtsezkoa da tokiko administrazioen, Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren erantzukidetasuna eta lankidetzak. Kasu honetan, funtsezko koordinazio organoa **Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendu Batzordea** da. Alor honetan, Ingurumen Plangintzako eta Biodibertsitatearen eta Ingurumen Parte-hartzearen Zuzendaritzek plan eta programen ingurumen-eraginaren ebaluazioaren prozesuan txostena aurkeztuz esku hartzen dute.

Hiru hauek dira helburu estrategiko hau lortzeko lanean lehenetsi diren jardute esparru gakoak. Lehendabizi, **espazio** naturalen babesa eta kudeaketa (3. Helburu Operatiboa, "Natura 2000 sarean dauden EAEko habitat eta espazioen kudeaketa aktiboko maila altua erdiestea"). Bigarren, **espezieen** babesa eta kudeaketa (4. Helburu Operatiboa, "EAEn galzorian zein egoera kritikoan dauden espezieen populazioen joera hobetzea"). Eta azkenik, habitaten kudeaketa eta **zaharberritzea** eta lurzoruaren artifizializazioa mugatzea (5. Helburu Operatiboa, "Habitat naturalek, erdi naturalek zein naturalizatuek okupatzen duten lurraldearen hedadura handitzea eta haien kontserbazio-egoera etengabe hobetzea").

2. HELBURU ESTRATEGIKOA DIBERTSITATE BIOLOGIKOAREN GALERA GERARAZTEA, EKOSISTEMAK ZAHARBERRITzea ETA LURZORUAREN ARTIFIZIALIZAZIOA MUGATzea		
Kategoria	Definizioa	Arduraduna
HELBURU OPERATIBOA	3. Natura 2000 sarean dauden EAEko habitat eta espazioen kudeaketa aktiboko maila altua erdiestea	Biodibertsitatearen eta Parte-hartzearen Zuzendaritza
JARDUTE-LERROAK	11. Kontserbatzeko Gune Berezien (KGB) eta Natura 2000 Sareko izendapenak betetzea eta kontserbazio aktiboko neurriak abian jartzea, horiek kontserbazio egoeran duten eragina zainduta eta ebaluatuta	Biodibertsitatearen eta Parte-hartzearen Zuzendaritza
	12. Geodibertsitatea kontserbatzeko eta kudeatzeko politika koordinatua garatzeko beharrezko oinarri eta irizpideen sorrera sustatzea ⁵	Biodibertsitatearen eta Parte-hartzearen Zuzendaritza
HELBURU OPERATIBOA	4. EAEn galzorian zein egoera kritikoa dauden espezieen populazioen bilakaera joerak hobetzea	Biodibertsitatearen eta Parte-hartzearen Zuzendaritza
JARDUTE-LERROAK	13. Galtzeko arriskuan dauden espezieen kontserbazio egoeraren jarraipena egiteko eta analizatzeko mekanismoak hobetzea eta sendotzea, eta horien Kudeaketa Planak onartzea	Biodibertsitatearen eta Parte-hartzearen Zuzendaritza
	14. Espezie inbaditzaileen aurkako borroka sustatzea eta haien inbadigarritasuna bultzatzen duten ingurumen-faktoreen gainean jardutea.	Biodibertsitatearen eta Parte-hartzearen Zuzendaritza
	15. Lehentasuneko espezie, habitat eta ekosistemen gaineko ezagutza hobetzea	Biodibertsitatearen eta Parte-hartzearen Zuzendaritza
HELBURU OPERATIBOA	5. Habitat naturalek, erdi naturalek zein naturalizatuek okupatzen duten lurraldearen hedadura handitzea eta haien kontserbazio-egoera hobetzea	Biodibertsitatearen eta Parte-hartzearen Zuzendaritza
JARDUTE-LERROAK	16. Hirigintza plangintzaren eta lurralde antolamenduko tresnen berrikuspenetan, lursail antropizatuak berrerabiltzeari lehentasuna ematea eta sustatzea, sail natural edo urbanizatu gabeen artifizializatu baino lehen, artifizializazioa prebenitzera begira.	Ingurumen Plangintzako eta Biodibertsitatearen eta Ingurumen Parte-hartzearen Zuzendaritzak
	17. Hiri trinkoen erdua sustatzea, baita dagoen hiriaren, lur bigun eta landaretzaren mantentzea ere	Ingurumen Plangintzako eta Biodibertsitatearen eta Ingurumen Parte-hartzearen Zuzendaritzak
	18. Kontserbazio egoera txarrean dauden ekosistemen zaharberritze eta kontserbazio jarduerak planifikatzea	Biodibertsitatearen eta Parte-hartzearen Zuzendaritza
	19. Lurraldearen zaintza sustatzea, Euskadiko Zaintza Entitateen Sarea sortuz	Biodibertsitatearen eta Parte-hartzearen Zuzendaritza
		Tokiko entitateak

⁵ Geodibertsitatea organismo biziei buruzkoa ez den arren, horren kudeaketa nagusiki espazio naturalekin lotzen da, horregatik atxikitzen zaio Helburu Operatibo horri.



3.3 3. HELBURU ESTRATEGIKOA. BALIABIDEEN ERABILERA ERAGINKORRA ETA KONTSUMO ARDURATSUA SUSTATZEA

Eusko Jaurlaritzak, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren (ILPNAS) bidez araudiak eratzeko eskumenak ditu, hondakin fluxu guztietan eta kudeaketa kontrola eta ikuskerapea zuzeneko eskumena industria hondakinetan, Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritzaren bidez. Gainera, hondakinen trafikoa zaintzea eta kontrolatzea dagokio, alor horretan foru eta udal zereginak koordinatuz.

Bestalde, hiri hondakinen kudeaketa udalen eskumen zuzena da eta, subsidiarioki, Foru Aldundiena. Hiri hondakinei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak Foru Aldundiekin eta euskal udalerriekin (Eudel eta Udalsarea 21-en bidez ordezkatuak) Hiri Hondakinak Koordinatzeko Organoaren bidez dituen koordinazio eta lankidetzak lanak funtsezkoak dira helburu hau betetzeko.

Foru Aldundiak hondakin solidoen kudeaketa koordinatzeaz arduratzen dira, bai hirikoena bai geldoena, fase guztietan, pilaketa, bilketa, garraioa eta tratamendua, lurralde historiko guztietan, jatorrian hondakinen sorreraren prebentzioa eta gutxitzea eta berrerabilera sustatuz. Halaber, birziklagarriak diren hondakinen gaikako bilketa sustatzen dute, baita horien birziklagarritasun eraginkorra ere, hondakindegia eta degradatutako guneak berreskuratzeko ekintzak sustatuz.

Horretarako, Foru Aldundiek dagokion plangintza eratzen dute, udal jarduerak koordinatzen dituen, alor horretan zerbitzuak osorik ematen direla bermatzeko eta hondakinen kudeaketako udalaz gaindiko azpiegiturak bultzatzeko. Lurralde Historiko bakoitzerako, plangintza hau ondokoa da: Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plana (2006-2016), Bizkaiko Hiri Hondakinen Prebentzio Plana 2010-2016 eta Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integrala 2002-2016.

Udalak, bakarrik edo Mankomunitateetan elkartuta, derrigorrezko zerbitzu gisa eskaintzen dute hiri hondakinen bilketa, garraioa eta kentzea, bakoitzaren udal ordenantzek ezartzen duenaren arabera eta dagozkien Foru Aldundiekin koordinatuta.

Bestalde, Ihobe Ingurumen Kudeaketarako Sozietate Publikoaren bidez, Eusko Jaurlaritzako ILPNASaren mende dagoena, enpresaren ekoeraginkortasunaren programak burutzen dira (Ekoeraginkortasuna Euskal Enpresan 2010-2014 Programa), baita kontsumo jasangarriaren ere, eta gainera, erosketa eta kontratazio publiko berdea sustatzen dira. Gainera, Ihobek, Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Mondragon Unibertsitatearekin batera, baita Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera ere, duela urte batzuetatik hona Ekodiseinu Ikasgelak proiektua bultzatzen dute, industria sektorearen eta unibertsitatearen artean elkarlanerako bideak ezartzera bideratuta dagoena, ingurumena eta Euskadiko enpresen lehiakortasuna hobetzeko.

Hiru hauek dira helburu estrategiko hau lortzeko lanean lehenetsi diren jardute esparru gakoak. Lehenengo, euskal **ekoizpen-egituraren eraginkortasuna hobetzea** (6. Helburu Operatiboa, "Euskal ekonomiaren produktibitate materiala guztira % 4 hobetzea"); bigarren, **hondakinen sorrera murriztea** (7. Helburu Operatiboa, "Hondakin industrial arriskutsu eta ez-arriskutsuen balorizazio materialeko tasa % 5 handitzea"); eta azkenik, **kutsatutako lurzoruen erremediazioa eta ondoko erabilera sustatzea** (8. Helburu Operatiboa, "Lurraldeko birziklatzean eta hiri espazioen, espazio industrialen eta azpiegituren berrikuntzan laguntzea, lurzoru berrien okupazioaren alternatiba gisa").

3. HELBURU ESTRATEGIKOA		
BALIABIDEEN ERABILERA ERAGINKORRA ETA KONTSUMO ARDURATSUA SUSTATZEA		
Kategoria	Definizioa	Arduraduna
HELBURU OPERATIBOA	6. Euskal ekonomiaren produktibitate materiala guztira % 4 hobetzea	Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza
JARDUTE-LERROAK	20. Ekodiseinua, bizi-zikloaren analisia eta ekoetiketaztea sustatzea	Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza
		Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza
	21. Teknologia Berrien Euskal Zerrendaren esparruan teknologia berriak sartu, eguneratu eta hedatzea	Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza
		Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza
	22. Lehengaien aurrezkiari buruz, hondakinen sorkuntzaren prebentzioari buruz eta kontsumo jasangarriari buruzko proiektuak sustatzea	Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza
		Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza
	23. Merkatalgune handiekin, banaketa-kateekin edota catering-enprekin hondakinen prebentzioaren eta ontzien murrizpenaren alorrean lanerako plan bat diseinatzea eta sustatzea	Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza
24. Hondatutako produktuak konpontzea eta berrerabiltzea sustatzea, bigarren eskuko merkatuen bidez	Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza	
25. Produktu jasagarrien eskaintza eta eskaera koordinatzea, esparru publikoan hornikuntzan eta kontratazioan erosketari berdeko irizpideak sartuz	Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza/ Ihobe	
HELBURU OPERATIBOA	7. Hondakin industrial arriskutsu eta ez-arriskutsuen balorizazio-tasa % 5 handitzea	Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza
JARDUTE-LERROAK	26. Lehengaiak azpiproduktuz eta hondakinez modu seguru batean ordezte, hondakina eta azpiproduktua zer den erabakitzeko irizpide argiak definitzen dituzten estandar eta arau teknikoaren garapenaren bitartez; halaber, erabilera posible bakoitzerako definitu beharko da noiz uzten dion gai batek hondakin izateari.	Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza
	27. EAEn kudeaketa-defizita diagnostikatu zaien hondakineterako kudeaketa-azpiegiturak sortzen laguntzea, merkatu librearen, autonahikotasunaren eta hurkototasunaren printzipioekiko begirunez	Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza
	28. EAEko Hiri Hondakinen Arau berrietan ondokoa ezartzea: biohondakinak gaika biltzea eta erabiltzeko gaitasuna bermatuta daukan konposta egitea sustatzea, kalitate estandarren bitartez.	Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza



3. HELBURU ESTRATEGIKOA		
BALIABIDEEN ERABILERA ERAGINKORRA ETA KONTSUMO ARDURATSUA SUSTATZEA		
Kategoria	Definizioa	Arduraduna
	29. Nekazaritza, baso eta abeltzaintzako azpiproduktuen kudeaketa sendotzen duten proiektuak sustatzea: nekazaritza sistemako material zikloa ixtea	Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza
		Nekazaritza Zuzendaritza
	30. Nekez baloriza daitezkeen hondakinetarako I+G+b proiektuak sustatzea (ekoizte-prozesua aldatzea, lehengaiak ordeztzea, zikloak ixtea, balorizatzeko bide berriak ikertzea, bioteknologiaren edo material estrategikoak birziklatzearen aukerak aztertzea...). Teknologiaren demostrazio-proiektuak garatzea eta ekimen publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzeta bultzatzea	Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza
HELBURU OPERATIBOA	8. Lurraldeko birziklatzean eta hiri espazioen, espazio industrialen eta azpiegituren berrikuntzan laguntzea, lurzoru berrien okupazioaren alternatiba gisa	Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza
JARDUTE-LERROAK	31. Kutsatutako lurzoruak erremediatzeko eta balorizatzeko soluzioak sustatzea eta erraztea	Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza
	32. Lurzorua ukitzen duten aplikazioetan erabiliko diren materialak erabiltzeko (lurzoruak/hondakinak) irizpide teknikoak, ekonomikoak eta inguruneak zehaztea	Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza

3.4 4. HELBURU ESTRATEGIKOA. INGURU GARBI ETA OSASUNGARRIA BERMATZEA

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak (ILPNAS) airearen eta lurzoruaren kalitate politiken araudien garapenean, ingurumen-plangintzan eta koordinazioan eskumena du. Zehazki, Ingurumen Plangintzako Zuzendaritzak atmosfera kutsa dezaketen jarduerak ebaluatzen eta kontrolatzen ditu, kutsadura akustikoa barne, eta gainera, zarataren alorreko plangintza bultzatzen du. Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritzak, bestalde, lurzoruaren kalitatea kontrolatzen eta ebaluatzen du, prebentzio, defentsa eta berreskurapen neurriak zehaztuz eta proposatuz.

Uraren kalitatearen eta horren zaintza sareen eta oro har ur ziklo osoaren gaineko eskumen zuzena Uraren Euskal Agentziarena da, Eusko Jaurlaritzako ILPNASari atxikita dagoena. 2015 Barne Arroen Plan Hidrologikoaren onarpena eta hedapena funtsezko tresna da eta osatu egiten du III. IEP hau uraren alorrean. Aipatu behar da hau dela URAREN sorreraz geroztik eratu den lehenengo IEP, eta IEP hau izapidetzen den aldi berean, izapidetzen ari da, halaber, Barne Arroen Plan Hidrologikoa, beraz, uraren kalitatearekin lotutako helburuak azken plan horretan jasotzen dira.⁶

Bestalde, udalerrriak dira saneamenduaren azken arduradunak: estolderia-sarera isurketak, hodi biltzaileen bidezko garraioa, arazketa eta ondoko isurketa, berriro erabiltzeko balditzetan.

Kutsatutako lurzoruen gaineko eskumena Ingurumen Kalitateko Zuzendaritzari dagokio, eta erreferentziatzko plangintza Lurzoru Kutsatuen Plana 2007-2012 da.

Ingurumen Plangintzako Zuzendaritzari dagokio udal mailan ingurumenean jasangarritasuna sustatzea.

Hiri inguruneetan airearen kalitatearen esparruetan, baita kutsatutako lurzoruen berreskurapen eta erremediazioan ere, Udalekiko koordinazioa eta lankidetzak, Eudel eta Udalsarea 21-en bidez, bereziki garrantzitsuak izango dira. Tokiko mailan gauzatutako jardueraren garrantzia adierazi behar da, bereziki udalerriei dagokienez, ibilgailu-zirkulazioari lotutako kutsadura arazoak konpontzeari begira.

Hiru hauek dira helburu estrategiko hau lortzeko lanean lehenetsi diren jardute esparru gakoak. Lehenengo, **airearen kalitatea hobetzea** (9. Helburu Operatiboa, "PM-10 partikula-indizea ona eta onargarria kategorietakoa izan dadin lortzea, % 95etik gorakoa"; bigarren, **ingurunearen kalitatea hobetzea, industria jatorriko eragina murriztuz** (10. Helburu Operatiboa, "Industria jatorriko kutsadura murrizten laguntzea"; eta, hirugarren, **lurzoruaren kalitatea hobetzea** (11. Helburu Operatiboa, "Kutsatuta egon litezkeen jabetza publikoko lurzoruetan ikertutako eta berreskuratutako azalera % 5 gehitzea").

⁴ Plan honetan Ingurumena sartzeko horren Ingurumen Eraginaren prozeduraren bidez berrikusten da, abiarazita dagoena, eta hori Ingurumen Plangintzako Zuzendaritzak ebaluatzen du.



4. HELBURU ESTRATEGIKOA INGURU GARBI ETA OSASUNGARRIA LORTZEA		
Kategoria	Definizioa	Arduraduna
HELBURU OPERATIBOA	9. PM-10, PM 2.5, Ozono eta NOx partikulen indizea ona eta onargarria kategorietakoa izan dadin lortzea, % 95etik gorakoa	Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza
JARDUTE-LERROAK	33. Airearen kalitatea hobetzeko proiektuak sustatzea, hori gainditzen den gunetan eta gunekorreran	Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza
	34. Airearen kalitatearen hobekuntzan, udalekin jardute-esparruak ezartzea, bereziki motordun mugikortasunetik eratorritako jardueretan eragina dutenak	Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza
	35. Hiri-inguruan usainen arazoari ekiteko arauak ezartzea	Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza
	36. Zaratzen legedia espezifiko bat garatzea	Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza
HELBURU OPERATIBOA	10. Industria jatorriko kutsadura murrizten laguntzea	Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza
JARDUTE-LERROAK	37. Industrian ura berrerabiltzea sustatzea	Uraren Euskal Agentzia, URA Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza
	38. Enpresen aldetik Eskuragarri dauden Teknika Onenak sartzen laguntzea, bereziki kutsatzaileak izan daitezkeen IPPC ez diren jardueretan.	Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza
	39. Obra zibilak eta eraikuntzak beren bizi ziklo osoan eragiten duen ingurumen-eragina murriztea	Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza
	40. Administrazioa-administratua harreman-ereduaren aldaketa sustatzea, aurretiko kontrolak murriztuz, eragile desberdinak erantzukizukide eginez eta ikuskapena horien zerbitzura jarritz.	Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza
HELBURU OPERATIBOA	11. Kutsatuta egon litezkeen jabetza publikoko lurzoruetan ikerketako eta berreskuratutako azalera % 5 gehitzea	Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza
JARDUTE-LERROAK	41. EAEko kutsatuta egon litezkeen jabetza publikoko lurzoruetan ikerkuntza eta berreskuratzea bultzatzea	Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza

3.5 5. HELBURU ESTRATEGIKOA: SAILARTEKO ETA ERAKUNDEARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA INDARTZEA, INGURUMENAREN ALDAGAIA ARAU PROIEKTUETAN ETA POLITIKA PUBLIKOETAN SARTZEA SUSTATUZ.

Helburu Estrategiko hau betetzeko bereziki beste sail, erakunde edo eragile publikoen inplikazio berezia behar da. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila dagoen ingurumen-koordinazioko organoak kontuan hartzeaz gain (besteak beste, EAEko Ingurumen Batzordea eta Euskadiko Ingurumenerako Aholku Batzordea, ikus dokumentu honen 2.4. puntua), helburu honen jardute-lerroak abiarazteko beharrezkoa da beste erakunde publikoekin, erkidego, estatu eta Europa mailakoekin, lankidetzan estuan aritzea.

Aurreko planek ez bezala, III. IEPk lehedabizikoz identifikatzen ditu erakunde, foru eta udal eskumenak. Identifikazio horren arabera soilik Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren eskumenekoak diren jardute-lerroak jasotzen dira, helburu estrategiko bakoitzaren lortzeko garatu behar diren beste koordinazio-neurrien kalterako izan gabe.

Jarraian adierazten diren helburuetan azaltzen den koordinazioaz gain, aldizka koordinazio-ekintzak egiten dira Estatuko Administrazio Orokorrekin, besteak beste, klima-aldaketaren alorrean sektoreko politiken koordinazio-bilerak edo Ingurumenaren Europako Kontseilurako Autonomia Erkidegoen jarreraren koordinazioari buruzkoak.

Bestalde, ingurumenaren alorrean EAEn eskumen banaketa eta gaiaren zeharkako izaera kontuan hartuta, ILPNASetik egiten den kudeaketak beste sail, administrazio eta eragileekin etengabe koordinatuta egotea eskatzen du, jarduera horri datzekion zati bat dira eta.

Beste politika batzuetan ingurumenaren aldagaia sartzeko ideia nagusiarekin, Helburu Estrategiko hau hiru esparru nagusitan banatzen da. Lehendabizi, ingurumen-alderdian eragina duten Eusko Jaurlaritzako sail desberdinen eta EAEko erakunde publikoen **plan esanguratsuen eraketan eta jarraipenean parte hartzea** (12. Helburu Operatiboa). Plan esanguratsuak eratzean eta jarraitzean egiten den koordinazio hori dokumentu honen 2.4. atalean jasotako organoen bidez egingo da. Bigarren, **ingurumen legedia eraberritzea eta hobetzea**, eta aplikatzea (13. Helburu Operatiboa). Eta, hirugarren, **erosketa eta kontratazio publiko berdearen irizpideak gehitzea** Eusko Jaurlaritzaren sailetan (14. Helburu Operatiboa).

Bestalde, 13. helburu operatiboari dagokionez, jardute-lerro gisa nabarmentzen da Beste eskualde batzuekin lankidetzan ingurumen-izaera duten proiektuetan eta horien hedapena erraztea. Jardute-lerro garrantzitsua da, sustatu egin behar dela ulertzen dena, eta beraz, III. IEP honetan jasotzen da, nahiz eta ez den identifikatzen helburu operatibo gisa, baizik eta zuenean helburu estrategiko gisa.

14. helburu operatiboarekin lotuta, aipatu behar da aurrerapenak egin direla Eusko Jaurlaritzak azken urteotan garatu dituen Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen alorrean irizpideak ezartzean, ondasunak edo zerbitzuak eskuratzean kontuan hartuz ez soilik alderdi ekonomikoak edo teknikoak, baita horiek bizitza-ziklo osoan duten eragina ere. Horrek esan nahi du, material eta produktuen ingurumen-portaera kontuan hartzeaz



gain, kontratuak gauzatzekoan metodoak eta prozedurak eta hornitzaileen eta fabrikatzaileen ingurumen-portaera aztertzen direla.

Helburu Estrategiko honen testuinguruan, halaber, Tokiko Agenda 21-en prozesua adierazi behar da, oso zabaldua euskal udalerrien artean, Jasangarritasunerako Euskal Udalerrien Sarea, Udalsarea 21, bezalako egiturei esker.

Azkenik, garrantzitsua da adieraztea Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazioa (IEBE) prozedura eraginkorra izan dela ingurumen-alderdiak, edo oro har, jasangarritasun-irizpideak sartzeko, plan eta programa publikoen eraketan eta egokitzean. Izan ere, 2011-2014 III. Ingurumen Esparru Programa berak prozesu hori jasan du.

Oro har, IEBEren asmoa da, proiektu jakin baterako zentzuz kontuan hartutako alternatiba multzo baten aurrean, egokiena aukeratzea eta horren zehaztapenak era pilatuan eta batera aplikatzetik sor litezkeen ingurumen-ondorioak prebenitzea eta zuzentzea; hori guztia ingurumenaren babes-maila altu bat eta lurraldearen eta bere baliabideen erabilera jasangarri bat lortzeko.

5. HELBURU ESTRATEGIKOA SAILARTEKO ETA ERAKUNDEARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA INDARTZEA, INGURUMENAREN ALDAGAIA ARAU PROIEKTUETAN ETA POLITIKA PUBLIKOETAN SARTZEA SUSTATUZ.		
Kategoria	Definizioa	Arduraduna
HELBURU OPERATIBOA	12. EAEko Administrazioen politika esanguratsuak egitean parte hartzea, gutxienez 8tan	Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza
JARDUTE-LERROAK	42. Ingurumen-aldagaia sektoreko plangintzetan sartzen laguntzea eta sustatzea, horretarako tresnen artean ingurumen-eraginaren ebaluazioa erabiliz.	Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza
	43. Tokiko entitateei laguntzeko ildoak formulatzea eta metodologiak eta tresnak (teknikoak eta ekonomikoak) ezartzea, helburu estrategikoak lortzen laguntzea ahalbidetuko duten tokiko ekintzaren esparruetan.	Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza
		Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza
	44. Helburu Operatiboak hedatzeko sailarteko eta erakundearteko eta arteko koordinazioa sustatzea, lehendik dauden mekanismoak indartuz.	Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza
Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza		
		Biodibertsitatearen eta Ingurumen Parte-hartzearen Zuzendaritza
HELBURU OPERATIBOA	13. Erkidegoko ingurumen-legedia hobetzea, gutxienez 6 eremu esanguratsutan segurtasun juridikoa bermatzeko.	Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza
JARDUTE-LERROAK	45. Indarrean dagoen legedia hobetuko duen ingurumen-araudia eratzea sustatzea.	Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza
	46. Sail arteko eta erakunde arteko egiaztatze prozesuak sustatzea, baita EAEko ingurumen-araudi autonomikoa eratzean eta erreformatzean izaera parte-hartzailea ere.	Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza
		Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza
	47. Beste eskualde batzuekin lankidetzatza ingurumen-izaera duten proiektuetan eta horien hedapena erraztea.	Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza
Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza		
		Biodibertsitatearen eta Ingurumen Parte-hartzearen Zuzendaritza
HELBURU OPERATIBOA	14. Erosketa eta kontratazio publiko berdearen irizpideak gehitzea Eusko Jaurlaritzaren Sailetan eta atxikitako Erakunde Publikoetan, erosketa publiko "esanguratsuen" % 100ean, gaur egun ingurumen-irizpide jakinik baldin badute	Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza Ihobe
JARDUTE-LERROAK	48. Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen programa espezifiko bat eratzea Gobernurako.	Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza Ihobe



3.6 6. HELBURU ESTRATEGIKOA: INTERESGARRIAK DIREN ERAGILE EKONOMIKO, ZIENTIFIKO-TEKNOLOGIKO ETA SOZIALAK ERANTZUKIZUKIDE EGITEA, MERKATUA INGURUMENAREN ALDE ERABILIZ ETA INFORMAZIOA ETA PRESTAKUNTZA HOBETUZ

Helburu Estrategiko hau, aurrekoa bezala, ez da ingurumen-esparru zehatzei buruzkoa, baizik eta interesgarriak diren eragile ekonomiko, zientifiko-teknologiko eta sozialek ingurumenaren aldagaia sartzerantz zuzenduta dago. Horrela, aurreko Helburu Estrategikoan bezala, ideia nagusia da aktiboki lan egitea, jardute-lerro horiek eragile bakoitzaren (dela eskuduna, dela lankide edo erlazionatua) agenda eta tresnetan txertatzeko, baita era eraginkorren gauzatzearren laguntzea ere.

Hiru dira helburu honen esparru orokorrak. Lehendabizi, **euskal enpresen ingurumen-portaera hobetzea**, borondatezko kudeaketa-sistemen bitartez, ingurumen-aldagaiaren integrazioan etengabeko hobekuntza sartzen dutenak. Alor honetan gobernuak aukeratu eta bultzatzen duen sistema EMAS erregelamenduan oinarritutako kudeaketa-sistema da, Europar Batasunetik sustatzen dena (15. Helburu Operatiboa, “100 erakunde berritan EMAS ziurtagiriak areagotzea”). Bigarren, **gardentasuna eta ingurumen-informazioaren eskuragarritasuna sustatzea** (16. Helburu Operatiboa, “Gardentasuna sustatzea, ingurumen-informazioa eskuragarriago bihurtuz”). Eta azkenik, hirugarren, oro har herritarrei zuzenduta, ingurumen-arazoen **informazioa eta sentsibilizazioa sustatzea** (17. Helburu Operatiboa, “Ingurumen-kontzientzia sustatzea eta finkatzea Agenda 21 programen ezarpenaren eta herritarrei, eragile ekonomikoei, zientifiko teknologikoei eta sozialei zuzendutako jardueren bidez”).

EMAS sistemei buruzko helburua betetzeko, hedapenenean, informazioan eta prestakuntzan lan egingo da; enpresentzako pizgarrian ezartzean. Sailaren bitartekoez gain, Euskadiko Ingurumen Industrien Kluster Elkarte bat (ACLIMA) egongo da, ekintza horri bultzada emateko.

Ingurumen-informazioaren gardentasunari eta eskuragarritasunari dagokienez, finantzatutako proiektuei eta I+G proiektuei buruzko informazioa hobetzea planteatzen da, baita ingurumen-informazioa aurkezteko estandarrak sartzea ere.

Herritarren informazio eta sentsibilizazioari dagokionez, bereziki garrantzitsua da Tokiko Agenda 21 prozesua (aurreko puntuan aipatu den bezala, euskal udalerrietan oso hedatua dagoena), eta horretarako beharrezkoa da herritarrek parte hartzeko bide egonkorak ezarrita egotea. Aldi berean, Eskolako Agenda 21 aipatu behar da, ikastetxeen jasagarritasunerako eta kalitaterako hezkuntza-programa, komunitatearen parte-hartzean oinarritzen dena eta udalerrien garapen jasagarrian esku hartzen eta laguntzen duena.

6. HELBURU ESTRATEGIKOA		
INTERESGARRIAK DIREN ERAGILE EKONOMIKO, ZIENTIFIKO-TEKNOLOGIKO ETA SOZIALAK ERANTZUKIZUKIDE EGITEA, MERKATUA INGURUMENAREN ALDE ERABILIZ ETA INFORMAZIOA ETA PRESTAKUNTZA HOBETUZ		
Kategoria	Definizioa	Arduraduna
HELBURU OPERATIBOA	15. 100 erakunde berritan EMAS ziurtagiriak areagotzea	Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza
JARDUTE-LERROAK	49. EMAS enpresentzat pizgarriak eta onarpen-sistemak ezartzea	Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza
	50. EMAS-i dagokionez, enpresei informazioa ematea, sentsibilizatzea eta prestakuntza ematea.	Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza
HELBURU OPERATIBOA	16. Gardentasuna sustatzea, ingurumen-informazioa eskuragarriago bihurtuz.	Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza
		Biodibertsitatearen eta Ingurumen Parte-hartzearen Zuzendaritza
JARDUTE-LERROAK	51. Gardentasuna bermatzen laguntzea eta ingurumen-izaerako proiektuen bidez (I+G+b proiektuak barne) sortutako informazioa eta ezagutza erraztea.	Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza
		Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza
		Biodibertsitatearen eta Ingurumen Parte-hartzearen Zuzendaritza
	52. Ingurumen-informazioa aurkezteko estandarrak sartzea	Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza
		Biodibertsitatearen eta Ingurumen Parte-hartzearen Zuzendaritza
HELBURU OPERATIBOA	17. Ingurumen-kontzientzia sustatzea eta finkatzea Agenda 21 programen ezarpenaren eta herritarrei, eragile ekonomikoei, zientifiko teknologikoei eta sozialei zuzendutako jardueren bidez.	Biodibertsitatearen eta Parte-hartzearen Zuzendaritza
JARDUTE-LERROAK	53. EAEko ingurumen-informazioaren zabaltzea eta hedapena indartzea eta hobetzea, bereziki ingurumen-adierazleei eta Agenda 21ei buruzkoak	Biodibertsitatearen eta Parte-hartzearen Zuzendaritza
	54. Programa espezifikoaren bidez ingurumen-praktika egokiak sustatzea, bereziki Agenda 21 izenekoak (tokikoak, eskolakoak eta unibertsitatekoak).	Biodibertsitatearen eta Parte-hartzearen Zuzendaritza
	55. Administrazioetan, ikastetxeetan eta enpresetan ingurumen-prestakuntza orokorreko ekimenak indartzea	Biodibertsitatearen eta Parte-hartzearen Zuzendaritza
	56. Herritarrek, eragile ekonomikoak, zientifiko-teknologikoak eta sozialak kontzientziatzea, ingurumen-informazioa hobetuz eta ohitura jasangarriagoak sustatuz.	Biodibertsitatearen eta Parte-hartzearen Zuzendaritza
	57. Enpresei eta herritarrei ingurumen-legedia betetzea erraztea eta arintzea ahalbidetzen dien mekanismoak eta tresnak erabiltzea.	Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza



JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

3.7 ADIERAZLE-SORTA

III. IEPren aurrerapenaren kontrolak hainbat jarraipen maila eskatzen ditu:

Lehendabizi, jardute lerroen ezarpenaren urteko jarraipena. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Planifikazio, Nekazaritza eta Arrantza Sailari eta bere Erakunde eta lotutako Elkarte Publikoei dagozkien Aurrekontu Orokorren urteko memorieta txertatuko da jardute-lerro horien garapena.

Urte natural bakoitzaren amaieran, konpromiso/jardute-lerro bakoitzari esleitutako arduradunak kudeaketa-txostena egingo du, non konpromiso/jardute-lerroa betetzearen urtean gauzatutako ekintza esanguratsuenak bilduko baititu; txosten horrek, halaber, aldiaren hasierako aurrekontu-memorian jasotako aurreikuspenak zuritzeko balio izango du.

Bigarren, 2011-2014 III. Ingurumen Esparru Programaren helburu operatiboen aurrerapen mailaren eta betetzearen urteko jarraipenak Euskadiren Ingurumen Profila eratzea ekarriko du. Jarraipen eta ebaluazio txosten honek gutxienez ondoko informazioa barne hartuko du:

- III. IEPren helburu operatibo bakoitzaren adierazleak eta horien aurrerapen mailaren eta arrakastaren ebaluazioa.
- Helburu estrategiko eta helburu operatibo bakoitzerako urteko aurrerapen esanguratsuenen laburpena.
- Beste sektoreko politiketan, ingurumenean eragin berezia dutenetan, ezarritako helburuen azterketa.

EAEko Ingurumenaren Profila izango da III. IEPren urteroko aurrerapenei buruzko komunikazio eta eztabaida tresna nagusia. Horretarako topaketa eta egiaztatze puntuak bilatuko dira III. IEP honen definizioan parte hartu duten funtsezko eragileekin.

III. Ingurumen Esparru Programaren jarraipenean parte hartzeko eta egiaztatzeko egitekoa lehendik dauden organoen bidez egingo da, Ingurumenerako Aholku Kontseilua eta Ingurumen Batzordea, esaterako, Euskal Herriko ingurumena babesteko 3/1998 Lege orokorrak sortuak.

Jarraipen jarduera hauek EAEko Ingurumenaren Egoeraren hiru urtez behingo txostenarekin osatuko dira, ingurumenaren egoeraren diagnostikoaren analisi sakona, eta Ekobarometroekin –soziala, industrial eta hezkuntzako-, euskal gizarteak ingurumenari dagokionez dituen hautemateak, sentsibilitateak eta portaerak aldizka aztertzen dituztenak.

III. IEPren ebaluazioari dagokionez, Ingurumen Profilak helburu operatiboen eta, beraz, helburu estrategikoen aurrera egite eta betetze mailaren ebaluazioa edukiko du. Analisi kritiko bikoitza izango du adierazleetan oinarritutako urteroko ebaluazio horrek:

1. Denboran joeren ebaluazioa.
2. Konpromisoarekiko distantziaren ebaluazioa eta betetzeko aukerak.



EAEko Ingurumen Profilaren emaitzen aurkezpen, ebaluazio eta eztabaida eraikigarriaren bidez osatuko da urteroko barne-ebaluazio hori, eragileekin, Segimenduari lehen aipatutako koordinazio-organoen bitartez eta, bereziki, Ingurumen Batzordearen eta EAEko Aholku Batzordearen urteroko deialdien bitartez, lehen aipatutako beste batzordeei jakinarazitakoaz gain.

2014an, III. IEPren ezarpen aldia amaitzen denean, ebaluazio eta hausnarketa ariketa oso bat egingo da, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak gidatuko duena.

3.8 AGINTE-KOADRO INTEGRALA.

Aginte-koadro integralak III. IEPren Helburu Estrategikoak eta Operatiboak laburbiltzen ditu, eta dagozkien erreferentziazko adierazleekin lotzen ditu; horien jarraipenak Jardute-lerroen aurrerapen-maila ebaluatzea ahalbidetuko du.

AGINTE-KOADRO INTEGRALA			
HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURU OPERATIBOAK	ADIERAZLEAK	
INGURUMENA REN EGOERA	1. HE: EAE-N BEROTEGI EFEKTUKO GASEN EMISIOAK ARINTZEA ETA KLIMA- ALDAKETAREN ONDORIOAK MURRIZTEA	1. Klima-aldaketaren plangintzan ezarritako emisioak mugatzeko helburua betetzea	EAEko BEGen Emisioen urteko eboluzioa Arintze-irizpideak dituzten jarduera publiko eta pribatuen kop.
		2. EAEko jarduera/sektore gakoek KAre kalteekiko duten zaugarritasuna aztertzea sustatzea	Zaugarritasun-azterketa bat egiten zaien sektore kop. Politika bakoitzeko zehaztutako egokitze-irizpide kop.
	2. HE: DIBERTSITATE BIOLOGIKOAREN GALERA GERARAZTEA, EKOSISTEMAK ZAHARBERRITZEA ETA LURZORUAREN ARTIFIZIALIZAZIOA MUGATZEA	3. Natura 2000 sarean dauden EAEko habitat eta espezieen kudeaketa aktiboko maila altua erdiestea	Izendatutako KGBen % Onartutako eta ezarritako espazio naturalen kudeaketa planen %
		4. EAEEn galzorian zein egoera kritikoan dauden espezieen populazioen bilakaera joerak hobetzea	Onartutako eta ezarritako espezieen kudeaketa planen kop.; Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan dauden eta egoera hobetu duten espezieen %.
		5. Habitat naturalek, erdi naturalek zein naturalizatuek okupatzen duten lurraldearen hedadura handitzea eta haien kontserbazio-egoera hobetzea.	EAEEn habitat naturalek eta erdi naturalek eta naturalizatuek okupatzen duten hedaduraren %. Artifizializatutako lurzoruen % Kalitatea edo kontserbazio-egoera hobetu duten habitat naturalen azalera
	3. HE: BALIABIDEEN ERABILERA ERAGINKORRA ETA KONTSUMO ARDURATSUA SUSTATZEA	6. Euskal ekonomiaren produktibitate materiala guztira % 4 hobetzea	Materialen Beharra Guztira (MBG) Materialen Etxeko Kontsumoa (MEK) EAEEn dauden ekoetiketen kop. Ekodiseinuaren Arauan oinarrituta dauden ziurtapenen kop.
		7. Hondakin industrial arriskutsu eta ez-arriskutsuen balorizazio-tasa % 5 handitzea	Hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen balorizazioaren % TGEZn sartutako balorizazio-teknologien kop. Balorizatutako jardute-lerroen bidez bultzatutako hondakin eta azpiproduktuen tonak/urtean
		8. Lurraldeko birziklatzean eta hiri espazioen, espazio industrialen eta azpiegituren berrikuntzan laguntzea, lurzoru berrien okupazioaren alternatiba gisa	Berreskuratutako lurzoruen azalaren %

AGINTE-KOADRO INTEGRALA			
HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURU OPERATIBOAK	ADIERAZLEAK	
	4. HE: INGURU GARBI ETA OSASUNGARRIA LORTZEA	9. PM-10, PM 2.5, NOx eta Ozono partikulen indizea ona eta onargarria kategorietakoa izan dadin lortzea, % 95etik gorakoa	PM -10 partikulen indizea PM 2.5 partikulen indizea NOx eta Ozono kontzentrazioa
		10. Industria jatorriko kutsadura murrizten laguntzea.	Industria-kutsadura murrizteko gauzatutako jardueren kop.
		11. Kutsatuta egon litezkeen jabetza publikoko lurzoruetan ikertutako eta berreskuratutako azalera % 5 gehitzea	Kutsatuta egon litezkeen jabetza publikoko lurzoruetan ikertutako azalera Titulartasun publikoko kutsatutako lurzoruetatik, berreskuratutako lurzoruen azalaren %
ERAGILEAK MOBILIZATZEA	5. HE: SAILARTEKO ETA ERAKUNDEARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA INDARTZEA, INGURUMENAREN ALDAGAIA ARAU PROIEKTUETAN ETA POLITIKA PUBLIKOETAN SARTZEA SUSTATUZ.	12. EAEko Administrazioen politika eta jarduera esanguratsuak egitean parte hartzea, gutxienez 8tan	ILPNASaren parte-hartze aktiboa duten sektoreko plangintza kop.
		13. Erkidegoko ingurumen-legedia hobetzea, gutxienez 6 eremu esanguratsutan segurtasun juridikoa bermatzeko..	Onartutako ingurumen-arau berrien edo erreformatuen kop.
		14. Erosketa eta kontratazio publiko berdearen irizpideak gehitzea Eusko Jaurlaritzaren Sailetan eta atxikitako Erakunde Publikoetan, erosketa publiko "esanguratsuen" % 100ean, gaur egun ingurumen-irizpide jakinik baldin badute	Erosketa eta kontratazio publiko berdearen portzentajea, bolumen ekonomikoaren guttizkoari eta kontratuen kopuruari dagokienez
	6. HE: INTERESGARRIAK DIREN ERAGILE EKONOMIKO, ZIENTIFIKO-TEKNOLOGIKO ETA SOZIALAK ERANTZUKIZUKIDE EGITEA, MERKATUA INGURUMENAREN ALDE ERABILIZ ETA INFORMAZIOA ETA PRESTAKUNTZA HOBETUZ	15. 100 erakunde berritan EMAS ziurtagiriak areagotzea	EMAS ingurumen-erregistroa duten erakundeen kop.
	16. Gardentasuna sustatzea, ingurumen-informazioa eskuragarriago bihurtuz	Garatutako hedapen-jardueren kop.	
	17. Ingurumen-kontzientzia sustatzea eta finkatzea Agenda 21 programen ezarpenaren eta herritarrei, eragile ekonomikoei, zientifiko teknologikoei eta sozialei zuzendutako jardueren bidez.	TA21 duten udalen % Berritu diren Agenda 21en % Eskolako A21 duten ikastetxeen % Beste eragile batzuekin egindako ekimenen kop.	

4. III. IEP-ARI ATXIKITAKO AURREKONTUA

	ZENBATETSITAKO AURREKONTUA, €TAN			
	2011	2012	2013	2014
1. HE: EAE-N BEROTEGI EFETUKO GASEN EMISIOAK ARINTZEA ETA KLIMA-ALDAKETAREN ONDORIOAK MURRIZTEA	3.835.720	3.835.720	3.835.720	3.835.720
2. HE: DIBERTSITATE BIOLOGIKOAREN GALERA GERARAZTEA, EKOSISTEMAK ZAHARBERRITZEA ETA LURZORUAREN ARTIFIZIALIZAZIOA MUGATZEA	8.754.437	8.754.437	8.754.437	8.754.437
3. HE: BALIABIDEEN ERABILERA ERAGINKORRA ETA KONTSUMO ARDURATSUA SUSTATZEA	637.719	637.719	637.719	637.719
4. HE: INGURU GARBI ETA OSASUNGARRIA LORTZEA	5.640.551	5.640.551	5.640.551	5.640.551
5. HE: SAILARTEKO ETA ERAKUNDEARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA INDARTZEA, INGURUMENAREN ALDAGAIA ARAU PROIEKTUETAN ETA POLITIKA PUBLIKOETAN SARTZEA SUSTATUZ.	8.432.255	8.432.255	8.432.255	8.432.255
6. HE: INTERESGARRIAK DIREN ERAGILE EKONOMIKO, ZIENTIFIKO-TEKNOLOGIKO ETA SOZIALAK ERANTZUKIZUKIDE EGITEA, MERKATUA INGURUMENAREN ALDE ERABILIZ ETA INFORMAZIOA ETA PRESTAKUNTZA HOBETUZ	6.132.115	6.132.115	6.132.115	6.132.115
KUDEAKETA⁷	11.566.159	11.566.159	11.566.159	11.566.159
GUZTIRA	44.998.956	44.998.956	44.998.956	44.998.956

⁷ Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzako eta Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren egitura eta langile gastuak.



Aurreko koadroak Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren aurrekontu-partidak islatzen ditu, III. IEPren Helburu Estrategikoen arabera. Partida horiek, datozen lau urteotan Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-politika gauzatuko duten Jardute-lerroak gauzatzera eta garatzera bideratuko dira. III. Ingurumen Esparru Programa ezartzeko erabiliko den aurrekontua, guztira, 179.995.824 €-koa izango da.

Plangintza hau benetan ezartzeak, gainera, sailarteko eta erakundearteko koordinazio-lan handia dakarrenez ILPNASaren berezko aurrekontuetako aurreikuspen horiek beste Sail eta Erakundeek ipintzen dituzten baliabideez osatu ahal izango dira.

Islatu ez den arren, aurrekontu horren gainean herri administrazioaren beste erakunde batzuetatik datozen aurrekontu-partidak gehitu beharko lirateke, esaterako, III. IEPk eragin egin nahi dien ingurumen-esparru garrantzitsuetan eskumenak dituzten Foru Aldundiak. Euskadiko Herri Administrazioen 2008. urterako Ingurumen Gastua 550,1 M€-koa izan zen, eta 2006-2008 aldian ia aldaketarik gabe mantendu da.

Duten garrantziarengatik, beste batzuk ere aipa daitezke, esaterako, Euskadiko Barne Arroen Plan Hidrologikoa. Horren aurrekontu-gauzatzeak eragin nabarmena izango du uraren kalitatearekin lotutako Helburu Estrategikoan (4. Helburu Estrategikoa, Inguru garbi eta osasungarria lortzea). Zentzu horretan, adierazi behar da Plan Hidrologikoak 2011-2015 aldirako guztira 843 milioi euroko aurrekontua dakarten neurriak barne hartzen dituela.

Bestalde, Klima-aldaketari Aurre Egiteko Euskal Planak (IEP honen 1. Helburu Estrategikoarekin lotuta dagoenak) 630,6 milioi € aurreikusten ditu indarrean dirauen aldian zehar jasotzen dituen programa eta jarduerak gauzatzeko.

Halaber, adierazi behar da neurri batean 5 eta 6. Helburu Estrategikoen aurrekontu-partidek eragin zuzena dutela gainerako helburuen gainean, enpresa eta udalerrietan ingurumena hobetzea sustatzeko diru-laguntza eta programen bidez (udalerrietan garapen jasangarria eta Tokiko Agenda 21 prozesuen sustapena, enpresei beren eraginkortasuna areagotzeko diru-laguntza zuzenak, etab.) edo ingurumen-informazio, -kontzientziazio eta –sentsibilizazioaren jardueren bidez. Horrela, ILPNASek Tokiko Entitate eta Erakundeek emandako diru-laguntzen agindua, 2011n, guztira 6.734.000 € -koa izan da eta horrela banatu da: kutsatutako lurzoruak (2.250.000 €), atmosfera (2.274.000 €), biodibertsitatea (1.910.000 €) eta Eskolako Agenda 21 (300.000 €).

I. ERANSKINA. ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTU ESTRATEGIKOAK

EAE-KO DOKUMENTUAK	
ERAKUNDEA	DOKUMENTUA
Foru Aldundiak	Bizkaia 21
	Bizkaiko Hiri hondakinak Kudeatzeari buruzko II. Plan Integrala 2005-2016
	Gure etorkizun komuna elkarrekin eraikitzen. Gipuzkoa 2020-2030 estrategia 2007-2011 Kudeaketa-plana. Gipuzkoako Foru Aldundia
	Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integrala (GHHKPI)
	Gipuzkoako Bizikleta bideen Sektoreko Lurralde Plana. Hasierako dokumentua, 2009ko azaroa.
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila	Ingurumenaren Egoera EAEn 2009
	Euskadiren Ingurumen Profila 2009
	2008ko Ekobarometro Soziala
	Diagnostikorako indar mezuak
	Klima-aldaketari Aurre Egiteko Euskal Plana 2008-2012.
	EAEko Airearen Kalitatearen Ekintza Planak
	Lurzoru Kutsatuen Plana 2007-2012
	EAEko Hondakin arriskutsuak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2008-2011
	EAEko Hondakin ez arriskutsuak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2008-2011
	EAEn Hiri Hondakin Solidoak Planifikatzeko eta Kudeatzeko Ildoak
	Lurralde Antolaketako Ildoen berrazterketa
	EHko barne arroen gai garrantzitsuen eskema
	Iparraldeko Arroen gai garrantzitsuen eskemarako kontribuzioa
	Mediterraneo aldeko Arroen gai garrantzitsuen eskemarako kontribuzioa
Basoen Euskal Plana 1994-2030	
EAEko Landa Garapen Jasangarriako Programa 2007-2013.	
Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Saila	Garraio Jasangarriaren Gidaplana 2002-2012
Lehendakaritza	Urdaibaiko Adierazpena

EAE-TIK KANPOKO DOKUMENTUAK	
JATORRIA	DOKUMENTUA
Europako Batasuna	Europa 2020. Hazkunde adimendun, jasangarri eta integratzaile baterako estrategia
	Klima-aldaketaren eta energiaren inguruko lege arau multzoa, 2008
	Europako Energia Teknologiko Plan estrategikoa, 2007
	Lehengaien inguruko Europar ekimena 2008
	Ingurumen-teknologien aldeko ekintza-plana
	Hondakinei buruzko Esparru Zuzentaraua, 2008
	Urari buruzko esparru zuzentaraua eta ur-eskasiaren eta lehordeen gaineko Europako Batasunaren erkidego-politika, 2007
	EB-ren osasun alorreko estrategia, 2007
	Ikerketa eta Garapen Teknologikoko Zazpigarren Esparru Programa (2007-2013)
	Ingurumenaren aldeko estatu laguntzei buruzko komunitateko arauak
	Biodiversity: Post-2010 EU and global vision and targets and international ABS regime – Council conclusions -
	Eraikuntzen energia-errendimendua. 2010eko maiatzaren 19ko 2010/31/EU Zuzentaraua
	«Ingurumena Behatzeko Munduko Sistema (GMES)» delakoaren Bazkide Kontseilua eratzen duen 2010eko otsailaren 5eko batzordearen Erabakia
	2010eko maiatzaren 19ko Europako Parlamentuko eta Kontseiluaren 2010/30/UE Direktiba (moldatua)
	Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Direktiba Proposamena, lurzorua babesteko esparru bat xedatzen duena eta 2004/35/EE Direktiba aldatzen duena.

III. Ingurumen Esparru Programa 2011-2014

EAE-TIK KANPOKO DOKUMENTUAK	
JATORRIA	DOKUMENTUA
Espainia	Garapen jasangarriko Espainiako Estrategia. 2007ko azaroa
	Mugikortasun jasangarriko Espainiako Estrategia 2009
Suedia	Europako biodibertsitate-galera gerazteko "Cibeles" lehentasunak (2010)
	Sweden's Environmental Objectives – New perspectives, 2009
	A sustainable energy and climate policy for the environment, competitiveness and long-term stability, 2009
Britania Handia	New Planning Building Requirements, 2009
	Waste Strategy for England, 2007
	Climate Change Act, 2008
	A Strategy for England's Trees, Woods and Forests, 2007
Flandes	Sustainable development in Government Targets, 2010
	Environment, Nature and Energy Department (DLNE)
	'Milieupoot' Flandesko Ingurumenaren Egoerari buruzko Estatu Txostenak

EAE-KO GORABIDEKO DOKUMENTUAK	
ERAKUNDEA	DOKUMENTUAK
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila	Klima-aldaketaren euskal legearen proiektua
	Eraikuntza eta Eraipen Hondakinen Dekretu Proiektua
	Klima-aldaketari Aurre Egiteko Euskal Plana 2020.
	LAA-en berrikuspena
	EcoEuskadi 2020ren funtsezko dokumentuak
Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila	Euskadiko Barne Arroen Plan Hidrologikoaren Proiektua
	Euskadiko Energia Estrategia 2020, 3E-2020
	Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2015
Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Saila	Mugikortasun jasangarriaren euskal legearen proiektua
	Mugikortasun jasangarriko gidaplana
	Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzaren Gidaplana 2010-2013
Osasun eta Kontsumo saila	Osasunaren Euskal Plana 2012-2020

EAE-TIK KANPOKO GORABIDEKO DOKUMENTUAK	
JATORRIA	DOKUMENTUAK
Europako Batasuna	EB-ko biodibertsitateari buruzko 2010en ondoko estrategia. 2010eko martxoaren 16ko Europako Kontseiluaren erabakien gehigarria: Biodiversity: Post-2010 EU and global vision and targets and international ABS régime.
	Eraikuntzen energia-errendimendua. 2010eko maiatzaren 19ko 2010/31/EU Zuzentaraua
	Lurzorua babesteko esparrua sortzeko Zuzentarauaren berrikuspena. EB-ren Presidentziaren zuzenketak onesteko proposamena
	Bio-hondakinei buruzko berriazko lege-arauak zabaltzea. Batzordeak Kontseiluari eta Europako Parlamentuari eginiko komunikazioa, EB-ko bio-hondakinen kudeaketa dela eta etorkizunean egin beharreko urratsei buruzkoa
	Gailu Elektrikoen eta Elektronikoen Hondakinei buruzko Europako Zuzentarauari eginiko zuzenketak: Directive 2002/96/EC on waste electrical and electronic equipment (WEEE).
	Industriaren emisioei buruzko Direktiba-proposamena: Proposal for a Directive of the European Parliament and of the Council on industrial emissions (integrated pollution prevention and control)
	2010eko apirilaren 28ko Batzordearen Gomendioa, «Nekazaritza, elikagaien segurtasuna eta klima-aldaketari» buruzko ikerkuntza batera programatzeko ekimenaren ingurukoa
	Basoak babesteko liburu berdea



III. Ingurumen Esparru Programa 2011-2014

EAE-TIK KANPOKO GORABIDEKO DOKUMENTUAK	
JATORRIA	DOKUMENTUAK
Espainia	Ekonomia Jasangarriari buruzko lege-proiektua Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko azaroaren 19ko 2008/98/EE Zuzentaraua, hondakinei buruzkoa, (Hondakinen Esparru Zuzentaraua), hainbat zuzentarau baliogabetzen dituenaren transposizioa.

II. ERANSKINA. PARTE-HARTZE ETA EGIAZTATZE PROZESUAREN EMAITZAK

2011-2014 Ingurumen Esparru Programa guztion programa izango bada, oinarrizkoak dira parte-hartze eta egiaztatze ekintzak. III. IEP denon ekarpenen bidez aberastea izan da ekintza horien azken helburua, betiere bermatuta alde guztien ikuspegiak jasota geldituko direla.

Nahiz eta bi kontzeptuok, parte-hartzea eta egiaztatzea, helburu komun baten bitartez elkarrekin lotuta egon, definizio hauek aintzat hartuz gero bereizi egin daitezke:

- **Parte-hartzea.** Parte-hartzeak dira eragile gakoek eta herritarrek egindako ekarpenak, horretarako irekitako bideak erabiliz. Gizarte zibilaren erantzukidetasun eta gai izateko sentimendua areagotzea da parte-hartzearen helburua.
- **Egiaztatzea.** Halakotzat hartuko dira sail administratiboen artean nahiz erakundeen artean egiten diren kontsulta prozesuak. Politika publikoen arteko koherentzia bermatzen du eraginkortasuna areagotzearen, eta sinergiak sustatzeko aukera ematen du.

Hauek izan dira egiaztatze instituzionaleko eragileak eta bideak:

- Ingurumenari eragiten dioten beste gaietako eskumena duten Jaurlaritzako beste Sail batzuk (elkarrizketen bidez).
- Foru Aldundiak (koordinazio bileraren bidez).
- Udalak (Udalsarea 21-ekin Gaiaren Jardunaldi espezifiko baten bidez).

III. IEPren konfigurazioa osatzeko parte-hartze prozesuan ezarritako eragile eta tresnak, berriz, hauek izan dira:

- Gizarte, enpresa, zientzia eta teknologia eragileak (Ingurumen Foro baten eta Gaiaren Jardunaldi espezifikoaren bidez).
- Herritarrak oro har (Irekia atariaren bitartez)

Eranskin honetan laburbildu dira III. IEP prestatzeko lanetan izandako parte-hartze eta egiaztatze ekintzak.

PARTE-HARTZE ETA EGIAZTATZE EMAITZEN LABURPENA

**Gizarte, enpresa, zientzia eta teknologia eragileentzako Ingurumen foroa
(2010-10-27)**

Xedea: Jardute lerroak lehenestea eta iruzkin eta ñabarduretatik bildutako ekarpenak eta jardute lerro berriak biltzea.

Lan eskema: Helburu Estrategikoen (HE) arabera taldeetan egin da lana, eta gerora osoko bilkuran. Lan tresna moduan, helburu estrategiko bakoitzerako jardute lerroen aurretiazko proposamena zekarren galdategia erabili zen; parte-hartzaileek haiek iruzkindu, osatu eta lehenesteko aukera izan zuten.

Parte-hartzaileak: Buruak: Ingurumen sailburuordea, Ingurumen Plangintzako zuzendaria eta Ihobe Idazkaritza Tekniko gisa. Gizartearen (% 30), industriaren (% 40) eta zientzia eta teknologiaren (% 30) alorreko 44 ordezkari hartu zuen parte Ingurumen Foroan.

Acero y Medio Ambiente; Aclima; AENOR; AFESA; AFESA; Behemendi Elkartea; Bero eta Hotz Instalazioen Mantentzaileen Elkartea; Asociación Vasca de Empresas Químicas; AZTI-Tecnalia; Bilbao Ría 2000; Bmasl Strategy; Ingurumen Gaietarako Ikastegia; CIMAS; Mugikortasunaren Clusterra; Ekonomisten Euskal Elkargoa; Confebask; Tokiko Agenda 21; EJ Ingurumen Hezkuntza; Ekorrepara S. Coop.; ELIKA; EUDEL; Euskaltel; Eusko Trenbideak; EVE; Euskadiko Kontsumitzaileen Federazioa; EDE Fundazioa; Novia Salcedo Fundazioa; San Prudencio Fundazioa; GAIKER; Iberdrola – Argindar Banaketa; Innobasque; Idom; LBEIN- Tecnalia – Ingurumen-Unitatea; LBEIN-Tecnalia – Berrikuntza Sistemak; Lan Ekintza Bilbao; Naider; Ondoan; Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa; SEA Arabako Enpresariak; Sidenor; SPRILUR; UPV/EHU

Ingurumen Foroan atera ziren mezu nagusiak

Lan taldeen jardunaren ondorioz, proposatutako jardute lerroen lehenespen bat, haiekiko iruzkin eta ñabardura sorta eta aintzat hartzeko jardute lerro berrien multzo bat lortu zen.

1. HE dela eta, helburua bera lurralde antolaketako, hirigintza plangintzako eta azpiegituretako politikan eta politika hidraulikoan txertatzeko, prozesua egokitzeko irizpideak garatzeko lanen beharra azpimarratu zen. Eztatidaren ondorioz, garrantzi maila berean jarri zen administrazio publikoak gizartearentzako eredugarria izateko duen ardura, eta kontratazio eta erosketa publiko berdea sustatzearen garrantzia nabarmendu zen. Gainera, energia berriztagarrien eta energia-eraginkortasunaren inguruko jardute-lerroak gehitzeko beharra azpimarratu zen, eskumen horiek ILPNASenak ez izanagatik ere.

2. HE-aren mahaian biodibertsitatearen kontserbazioa lehenetsi zen, berriazko arauen eta plangintzaren bidez bestelako lerroen kaltean. Zentzu berean, oinarritzat jo zen administrazio publikoek lurjabe pribatuek biodibertsitatearen babesaren arloan gauzatzen duten lana aitortu eta ekonomikoki saritzeko neurriak hartzea.

3. HE-ari dagokionez, berriz, gaur egun zabortegira bideratzen diren materialak



balorizatzeko ekintzak garatzeko ildotik joan ziren lantaldearen kezka nagusiak. Oso positibotzat jo zen, halaber, ekodiseinuaren eta bizi zikloaren analisiaren bidezko prebentzioari buruzko jardute lerroa gehitzeko aukera. Proposamen berrien artean, badira batzuk oso interesgarriak, berritzaileak zirenez, hala nola hondakinetatik material estrategikoak berreskuratzea eta hondakinak tratatzean bioteknologia aplikatzea.

4. HE-ari buruzko eztabaidan agerian geratu zen lan taldearen lehen kezka uraren kudeaketa eta trafikoak airearen kalitateari egiten dion eragina direla. Urari dagokionez, zehazki, hornidura optimizatu eta isuriak murriztu beharra nabarmendu zen, betiere Ekoeraginkortasunaren Euskal Programaren bitartez. Garraioaren alorrean, berriz, garraio publikoaren eta, bereziki, bizikletaren garrantzia azpimarratu zen, ordezko garraibide moduan. Herritar eta enpresen kontzientziatu beharrak ere IEPn agertu behar lukeela adierazi zen, horrez gain.

Lurraren artifizializazioa dela eta, azkenik, lehen mailako lerrotzat hartu zuen lantaldeak antropizatutako lurzoruak berrerabiltzea, urbanizatu gabeen erabileraren kaltean, bai eta artifizializazioari aurrea hartzeko irizpideak gehitzea udalen hirigintza plangintzan eta Lurralde Antolaketako Arteztarauen berrikusketan, hiri trinkoak sustatzearen.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Nekazaritza eta Abeltzaintzako Zuzendaritzarekin bilera

(25-11-2010)

Xedea: III. Ingurumen Esparru Programan eragina izan dezaketean Eusko Jaurlaritzaren sektoreko plangintzen koordinazioa

Lan eskema: III. IEP eratzerakoan egon diren aurrerapenen aurkezpena. III. IEPren helburuekin lotuta, erakundearen lan lerro nagusien aurkezpena.

Parte-hartzaileak: Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza eta ***Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzako ordezkariak eta III. IEPren Idazkaritza Teknikoa.***

Bileran sortutako indar mezuak

Lurzoruaren kontserbazioari dagokionez, funtsezkoa da nekazaritza lurzorua babestea (bere ezaugarriak eta funtzioak).

LAPa gai garrantzitsua da: nekazaritza balio handiko lurzorua babestera zuzendu behar da. Aukera interesgarri bat izango litzateke konpentsazio mekanismoak ezartzea nekazaritza balio handia duten lurzorua artifizializatzen dituztenean.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako Zuzendaritzaren funtsezko lan lerro bat tokiko produktuarekin lotuta dago. Ulertzen da garrantzitsua dela tokiko kontsumoa sustatzea, eta bideragarria bada, kontsumo ekologikoa. Hori III. IEPren 1. helburu estrategikoarekin lotzen da, nekazaritzan eta abeltzaintzan karbonoaren aztarna murrizteari dagokionez.

Zurari dagokionez: zura eraikuntza produktuetan erabiltzeko proiektu interesgarriak daude. Eraikuntzan erabiltzerakoan, zuraren arazoak kentzeko berrikuntza proiektuak daude.

Basoei dagokienez: baso ziurtapen jasagarri baten prozesuan lanean ari dira, asmo sendoz ziurtapen hori zabaltzeko eta hedatzeko aurrerapausoak emateko. Hori ere lotu liteke III. IEPren 1. helburu estrategikoarekin (klima-aldaketa).



Bilera Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Energia eta Meategien Zuzendaritzarekin eta Garapen Industrialeko Zuzendaritzarekin.

(25-11-2010)

Xedea: III. Ingurumen Esparru Programan eragina izan dezaketen Eusko Jaurlaritzaren sektoreko plangintzen koordinazioa

Lan eskema: Elkarrizketa

Parte-hartzaileak: Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza eta *Energia eta Meategien Zuzendaritzako eta Garapen Industrialeko Zuzendaritzako ordezkariak eta III. IEPren Idazkaritza Teknikoa.*

Bileran sortutako mezu nagusiak

Ingurumen-aldagaia sartzeara jada kontuan hartzen ari da Garapen Industrialeko Zuzendaritzatik eta Energia eta Meategien Zuzendaritzatik: ingurumen (klima-aldaketa) eta industria (energia) politiken artean sinergia garbiak daude. Bi ikuspuntuetatik funtsezkotzat jotzen da energia aurreztearen, energia eraginkortasunaren eta teknologia garbien inguruan lan egitea.

Ingurumena geroz eta gehiago euskal enpresen lehiakortasun faktore garrantzitsu gisa ikusten da. Egungo krisiaren testuinguruan honek are garrantzi handiagoa hartzen du geroz eta zorrotzagoa den ingurumen-araudi bat duen merkatu global batean lehiatu behar duten jarduera ekonomiko berriak eratzekoan.

Energia eta Meategien Zuzendaritzatik Euskadi 2020 Energia Estrategia nabarmentzen da erreferentzia plangintza gisa klima-aldaketarekin lotutako III. IEPren 1. helburuari dagokionez.



Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Lurralde Antolaketako Zuzendaritzarekin bilera

(29-11-2010)

Xedea: III. Ingurumen Esparru Programan eragina izan dezaketen Eusko Jaurlaritzaren sektoreko plangintzen koordinazioa

Lan eskema: III. IEP eratzerakoan egon diren aurrerapenen aurkezpena. III. IEPren helburuekin lotuta, erakundearen lan lerro nagusien aurkezpena.

Parte-hartzaileak: Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza eta **Lurralde Antolaketako Zuzendaritzako ordezkariak eta III. IEPren Idazkaritza Teknikoa**. Guztira 3 pertsona.

Bileran sortutako indar mezuak

Kontuan hartu beharreko funtsezko alderdia: Lurralde Antolaketako Artezpideen Berrikuspena (LAAB). Lurzoruaren artifizializazioa mugatzea Lurralde Antolaketako Artezpideen (LAA) aldaketaren ardatz nagusietako bat da. Zentzu horretan lan egiteko erabiltzen den kontzeptua "hiri perimetroak" da, eta jarduerak, nagusiki, hiri trinkoagoetarantz bideratzen dira.

III. IEP eratzerakoan kontuan hartu beharreko gorabideko dokumentuei dagokienez, garrantzitsua da eratzen ari diren Lurralde Plan Partzialak berrikustea.

Garrantzitsua da, halaber, Paisaiaren Legea (eratzen ari dena) kontuan hartzea.

URA, Uraren Euskal Agentziarekin bilera

(30-11-2010)

Xedea: III. Ingurumen Esparru Programan eragina izan dezaketen Eusko Jaurlaritzaren sektoreko plangintzen koordinazioa

Lan eskema: III. IEP eratzekoan egon diren aurrerapenen aurkezpena. III. IEPren helburuekin lotuta, erakundearen lan lerro nagusien aurkezpena.

Parte-hartzaileak: Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza, **URako ordezkariak eta III. IEPren Idazkaritza Teknikoa.**

Bileran sortutako indar mezuak

Funtsezko plangintza elementua: Barne Arroen Plan Hidrologikoa 2011-2015 (PH). Dagokion neurrien programak kalitate helburuak ezartzen ditu ur masa mota bakoitzerako (itsasertzeko hiru tarteetako bakoitzerako, ibaien tarte desberdinetarako, etab.) eta masa mota bakoitzerako isurketa baldintza batzuk ezartzen dira. Neurrien programa, funtsean, hondakin uren arazketaren eta ubideen zaharberritze morfologikoaren inguruan egituratzen da.

PHan 2014an edo lehenago amaitzea aurreikusten diren planifikatutako jardute lerroak III. IEPean sartzea garrantzitsutzat jotzen da.



**Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Saileko Garraio Azpiegitura
Zuzendaritzarekin bilera**

(30-11-2010)

Xedea: III. Ingurumen Esparru Programan eragina izan dezaketen Eusko Jaurlaritzaren sektoreko plangintzen koordinazioa

Lan eskema: Elkarrizketa

Parte-hartzaileak: Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza eta **Garraio Azpiegituretako Zuzendaritzako ordezkariak eta III. IEPren Idazkaritza Teknikoa.**

Bileran sortutako mezu nagusiak

Zuzendaritza honen jardute lerro nagusietako bat garraiobide gisa trena (aldirikoa eta distantzia luzekoa) sustatzearen gainekoa da. Trenaren arazo nagusia hirien kanpoaldeak dira eta horietara heltzeko eta zerbitzuak elkarrekin lotzeko modua. Horrek, beste behin, hiri trinkoen ideiarra garamatza, horietan bilduz hirugarren sektorea (teknologia zentroen kontrako egoeraren adibidea jarri da). Inbertsioak, batez ere, tren esparruan egingo dira.

Errepideen mailan, aldaketa esanguratsu bat jasango duen lurralde historiko bakarra Bizkaia izango da.



Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Saileko Etxebizitza Zuzendaritzarekin bilera

(30-11-2010)

Xedea: III. Ingurumen Esparru Programan eragina izan dezaketzen Eusko Jaurlaritzaren sektoreko plangintzen koordinazioa

Lan eskema: Elkarrizketa

Parte-hartzaileak: Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza eta ***Etxebizitza Zuzendaritzako ordezkariak eta III. IEPren Idazkaritza Teknikoa.***

Bileran sortutako mezu nagusiak

Erreferentzia elementua: Etxebizitzaren aldeko Gizarte Ituna (EGI), Etxebizitzaren Legearen (zirriborroa) bidez hedatua, Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzaren Gidaplana 2010-2013 (zirriborroa).

Funtsezkotzat jotzen da alokairuzko etxebizitza sustatzea eta merkatuan higiezin merkatuaren krisia dela eta gelditutako lurzoruak sartzea.

EGlako energia eraginkortasuneko, eraikuntza hondakinen sorrera murrizteko eta lurzoruaren artifizializazioa murrizteko neurriak jasotzen ditu.

Diru-laguntzen Agindu bat dago etxebizitzak birgaitzea sustatzeko, energia eta irisgarritasun irizpideak kontuan hartuz.

Eraikinetan Energia Eraginkortasunaren Dekretu bat prestatzen ari da.

Funtsezkoa da hiri trinkoaren eredua sustatzea.



Udalsarea 21-ekin jardunaldia (2011-02-01)

Xedea: III. IEPren zirriborro-aurrerapenari buruzko ekarpenak jasotzea

Lan eskema: III. IEPren zirriborroaren aurkezpena eta horri buruzko eztabaida osoko bilkuran

Parte-hartzaileak: III. IEPren Idazkaritza Teknikoa eta Gobiaran, Durango, Sestao, Tolosaldea, Enkarterrialde, Bilbao, Abanto-Zierbana, Ermua eta Leioako ordezkariak.

Bileran sortutako mezu nagusiak

Inguru garbi eta osasungarria lortzea (hau da, uraren, lurzorua eta airearen kalitatea ziurtatzea). Garrantzitsua da maila akustikoan kutsatzaileak izan daitezkeen jardueren inbentario bat egitea, zaratari buruzko ordenantza eredu bat eratzea eta kutsadura akustikoaren erreferentzia mailak ezartzea.

Airearen kalitateari dagokionez, PM10-ei arreta eskaintzeaz gain, PM2,5 eta NOx partikulak ere kontuan hartu beharko lirateke.

Garrantzitsua da alboko udalerrien mugikortasun planak koordinatzea.

Hirigintza plangintzan eta garapenean ingurumen-irizpideak sartzea lurzorua artifizializazioa mugatzeko funtsezko alderdia da.

Merkatua ingurumenaren alde erabiltzea. Interesgarritzat jotzen da koordinazio mahai bat sortzea (udalerrak, foru aldundiak, etab.) erosketa publiko berdearen inguruan. Erosketa berdearen kontzeptua sektore pribaturantz hedatzea.

Herritarrak gaitzea eta erantzukizukide egitea. Beharrezkoa da udaletxeetako langileak (teknikariak eta zuzendariak) ingurumen-gaietan trebatzea eta sentsibilizatzea. Halaber, ezinbestekoa da Hezkuntza Saila horretan sartzea, Eskolako Agenda 21-ari buruzko trebakuntza eta sentsibilizazioa irakasleen artean zabaltzeko.

Ikerketari dagokionez, funtsezkoa da sistemaren eragileen artean lankidetzat sustatzea, enpresak barne.

Teknologia Zentroekin jardunaldia (2011-02-08)

Xedea: III. IEPren zirriborro-aurrerapenari buruzko ekarpenak jasotzea

Lan eskema: III. IEPren zirriborroaren aurkezpena eta horri buruzko eztabaida osoko bilkuran

Parte-hartzaileak: III. IEPren Idazkaritza Teknikoa eta Gaiker Fundazioko, Tecnalia Research and Innovation, Neiker, Cidetec eta Azti Fundazioko ordezkariak.

Bileran sortutako mezu nagusiak

Klima-aldaketa arintzeari dagokionez, zalantzan jartzen da labore energetikoen eraginkortasuna. Hala ere, biomasaren eta baso hondakinen gaia landu liteke.

Klima-aldaketara egokitzeari dagokionez, garrantzitsua da konponbideak eta neurri zehatzak garatzen hastea.

Biodibertsitatearen alorrean ikerketari dagokionez, horren sustapena ez litzateke soilik unibertsitate esparrura mugatu behar, baizik eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko gainerako eragileei ere zabaldu beharko litzaieke.

Garrantzitsua da kontsumo jasangarriari buruzko kontzientziazioaren gaineko jardute lerro bat gehitzea.

Beste politika batzuetan ingurumenaren aldagaia sartzeari dagokionez, beharrezkoa da (beste ikerketa eragileei) EAEn erabiltzen diren ingurumen-adierazleei buruzko ezagutza erraztea.

Herritarrak gaitzeari dagokionez, hondakin eta kontsumo alorrean herritarren kontzientziazioarekin lotutako jardute lerro bat sartzea eta ingurumen-adierazleak ezagutzea sustatzea.



**Euskadiko Ingurumen Industrien Kluster Elkarteak, ACLIMArekin jardunaldia
(2011-02-10)**

Xedea: III. IEPren zirriborro-aurrerapenari buruzko ekarpenak jasotzea

Lan eskema: III. IEPren zirriborroaren aurkezpena eta horri buruzko eztabaida osoko bilkuran

Parte-hartzaileak: Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza, III. IEPren Idazkaritza Teknikoa eta ACLIMako kide batzuk.

Bileran sortutako mezu nagusiak

Garapen jasagarriak garapen eredu desberdin baterantz joatea esan nahi duela, eta horretarako beharrezkoa da egungo produkzio eredu aldaketza, pertsonen bizi kalitatea areagotze aldera. Garrantzitsua da helaraztea jasagarritasunaren esparruak ez duela zertan muga gehiago ekarri behar (kasu honetan enpresentzat).

III. IEPk bere erreferentzia esparruan egun garatzen ari den EcoEuskadi 2020 ekimena kontuan hartu behar du.

Kutsatutako lurzoruei dagokienez, Euskadiko eragile desberdinek ezagutza handia dute eta hori EAEk gai horretan dituen ahalmenak beste autonomia erkidego batzuei saltzeko baliatu daiteke.

Ingurumen-erantzukizuna: Nola helduko dio Eusko Jaurlaritzak gai honi datozen urteotan eta nola islatuko da hori III. IEPn?

REACH erregelamendua: beharrezkoa da ingurumen-plangintza berrian jardute-lerro espezifiko bat sartzea, kontuan izanik erregelamenduaren aplikazioak izango dituen ondorio garrantzitsuak.

Azkenik, hausnarketa bat planteatu zen, sortzaile izatea, garatu ahal izateko espreski aurrekontu zuzkidura bat behar ez duten jardute-lerroak zehazteko.

Merkatua ingurumenaren alde erabiltzea: beharrezkoa da EMAS erregelamendua edo ISO 14000 ziurtagiria sustatzea. Herritarrek ez dute ziurtagiri horien esanahia ezagutzen, beraz, gutxitu egiten da kudeaketa tresna horiek ezar ditzaten enpresen pizgarria. Erosketa publiko berdearen kontzeptua sektore pribaturantz zabaltzeko liteke.

Herritarrak gaitzea eta erantzukizukide egitea: garrantzitsua da herri administrazioak ingurumen-portaera egoki baten gainean eman behar duen eredu.

I+G+b: EAEko eragileen artean lankidetzak sustatzea, enpresak barne. Euskadin enpresa, zientzia, teknologia eta beste hainbat esparrutako eragile ugari daude eta ahalmen handia dute, beraz, funtsezkoa da eragile horien arteko lankidetzak sustatzea.

Unibertsitateekin jardunaldia (2011-02-11)

Xedea: III. IEPren zirriborro-aurrerapenari buruzko ekarpenak jasotzea

Lan eskema: III. IEPren zirriborroaren aurkezpena eta horri buruzko eztabaida osoko bilkuran

Parte-hartzaileak: Buruak: Ingurumen sailburuordea, Ingurumen Plangintzako zuzendaria eta Ihobe Idazkaritza Tekniko gisa. Jardunaldi honetan izan ziren Euskal Herriko Unibertsitateko eta Mondragon Unibertsitateko ordezkariak.

Bileran sortutako mezu nagusiak

Funtsezkoa da lortu nahi diren ingurumen-helburuei dagokienez lehentasunak zehazteko irizpide teknikoak eta ekonomikoak erabiltzea.

Garrantzitsua da III. IEPk epe luzera aurreikusten diren agertoki ekonomikoen ziurgabetasunen aurrean gogorrak diren politikak sartzea.

Garrantzitsua da landa espazioetan kudeaketa planen inguruko gatazka konpontzea: Eusko Jaurlaritzak eratzten ditu eta Foru Aldundiek gauzatzen dituzte.

Klima-aldaketari buruzko 1. helburu estrategikoari dagokionez, beharrezkotzat jotzen da arintzea eta egokitzea argi eta garbi bereiztea.

Indarrean dagoen legeria eta horren aplikazioa hobetzeari dagokionez, garrantzitsua da Lurzoruaren Legearen gainean lan egitea.

Herritarrak gaitzea eta erantzukizukide egiteari dagokionez, beharrezkoa da Agenda 21 izenekoak, bai eskolakoak eta tokikoak, gehiago hedatzea.

Ez da soilik herritarren kontzientziazioaz hitz egin behar, baita herri administrazioetako teknikarienganako eta erabakitzaile politikoenganako kontzientziazioaz ere.

Oso garrantzitsua da Eusko Jaurlaritzako sailen arteko elkarrekintza eta lankidetzaren erraztea, baita unibertsitateetako ikasketen planetan (baita master eta graduondoko ikasketetan ere) ingurumen-aldagaia sartzea sustatzea ere, gradu guztietako eskola programetan sartuz.

Ez soilik eraginkortasunaren alorrean hezteko, baita kontsumo murriztearen alorrean ere (kontsumo arduratsua). Zentzu horretan, garrantzitsua da, halaber, ingurumen-gaia unibertsitateko irakasleen prestakuntza sustatzea.

Ezinbestekoa da udalerriei babesa ematea, euren hirigintza plangintzan eta garapenean ingurumen-aldagaia sar dezaten.

Beharrezkoa da unibertsitateko departamentu desberdinen artean, beste ikerketa zentro, enpresa eta herri administrazioen artean elkarlana eta lankidetzaren erraztea eta sustatzea.



GKEekin jardunaldia (2011-02-15)
Xedea: III. IEPren zirriborro-aurrerapenari buruzko ekarpenak jasotzea
Lan eskema: III. IEPren zirriborroaren aurkezpena eta horri buruzko eztabaida osoko bilkuran
Parte-hartzaileak: III. IEPren Idazkaritza Teknikoa eta Emaús Bidasoa, S.L.U., SEO BirdLife Donostia, ATEGRUS, BambHaus, Unesco Etxea, Euskadiko Mugarik Gabeko Ingeniaritza erakundeetako ordezkariak.
<p>Bileran sortutako mezu nagusiak</p> <p>Merkatuaz baliatzea ingurumena babesteko eta kontserbatzeko. Beharrezkoa da fiskalitate berdearekin eta ingurumen-enpresak sortzearekin lotutako jardute lerroren bat sartzea.</p> <p>1. helburu estrategikoari dagokionez, klima-aldaketarekin lotuta dagoena. Garrantzitsua da garraioarekin edo energiarekin lotutako jarduerak sartzea, baita emisioak konpentsatzeko mekanismoak ere.</p> <p>Biodibertsitatearen galerari dagokionez, ezinbesteko garrantzia du Europako Batasunaren Baterako Nekazaritza Politika (BNP) kontuan hartzea eta nekazaritza eta ingurumen-praktikak sartzea.</p> <p>Hondakinak saihesteari dagokionez, merkataritza gune handiekin lan egiteaz gain, garrantzitsua da merkataritza txikiak ere tartean sartzea.</p> <p>Azpiproduktuen erabilera sustatzea, tresna berriak sortuz, Katalunian egin denaren antzera (azpiproduktuen burtsa).</p> <p>Nazioarte mailako lankidetzari dagokionez, garrantzitsutzat jo zen ingurumen-aldagaia garapenerako lankidetzaren gaietan sartzea.</p>



III.ERANSKINA. AKRONIMOAK

EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
MEK	Materialen Etxeko Kontsumoa
ILPNAS	Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila
BEG	Berotegi efektua eragiten duten gasak
IEP	Ingurumen Esparru Programa
II. IEP	Bigarren Ingurumen Esparru Programa 2007-2010
III. IEP	Hirugarren Ingurumen Esparru Programa 2011-2014
MBG	Materialen beharra guztira
EIP09	Espainiaren Ingurumen Profila 2009, IM
BPG	Barne Produktu Gordina
PM10	10 µg-tik beherako diametroa duten partikula esekiak
AAEE	Autonomia Erkidegoak